



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

MEDIKUNTZA  
ETA ERIZAINZAKO  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE MEDICINA  
Y ENFERMERÍA

**ERIZAINZAKO GRADUA  
GIPUZKOA  
GRADO EN ENFERMERIA**

2015 / 2016 ikasturtea

**ALZHEIMER GAIXOTASUNA DUEN PERTSONARI ESKAINI BEHARREKO  
ZAINKETA INTEGRALAK**

**GRADU AMAIERAKO LANA**

Silvia Tellechea Iraola

Zuzendaria: Maria Jose Uranga Iturriotz



## **LABURPENA**

**Sarrera:** XX. mendetik hona, baldintza ekonomikoek, teknologikoek eta osasun arlokoek izandako aurrerapenek biztanleen bizi kalitatea hobetzea, bizi itxaropena luzatzea eta biztanleria zahartzea eragin dute. Horiekin batera, adinarekin lotura duten gaitzak areagotu dira, adibidez, demenzia. European demenzia ohikoena Alzheimerra da. Demenziak menpekotasun handia sortzen du eta inguruarengan ere eragiten du.

**Helburuak:** Alzheimerra duen pertsonaren beharrei erantzuteko eskaini beharreko zainketa integralak proposatzea. Hori lortzeko, gaixotasunaren patologia, zeinuak eta pertsonaren komunikazio arazoak deskribatzea; komunikatzeko estrategia eraginkorrak azaltzea; terapia ez farmakologikoen eraginkortasuna aztertzea; erizaintzako zainketa plan estandarizatua eta indibidualizatua garatzea.

**Metodologia:** alde batetik, berrikuspen narratiboa egin da eta bestetik, erizaintza prozesua aplikatuz, zainketa planak aurkeztu dira. Bilaketa bibliografikoa datu base eta web orri ezberdinetan egin da. Horietan DeCs eta MeSH deskriptoreak, iragazkiak eta aukeratze/baztertze irizpideak erabili dira. Liburuak eta NNNConsult online plataforma ere erabili dira.

**Emaitzak:** Alzheimer gaixotasunak eragiten dituen beharrei erantzuteko, zainketa plan estandarizatua eta indibidualizatua garatu dira. Horietan, bilaketa bibliografikoan aurkitu diren eta ebidentzia erakutsi duten neurriak txertatu dira.

**Ondorioak:** Alzheimerra duen pertsonaren osasun egoera baldintzatzen duten faktore psikikoak eta sozialak kontuan hartzea oso garrantzitsua da. Pertsonari arreta integrala, diziplina anitzekoa eta kalitatezkoa eman behar zaizkio. Zainketak indibidualizatu egin behar dira eta prozesua egonkortzera, auto-zainketa indartzera nahiz kalitatezko bizi mantentzera bideratuko dira. Enpatiak, komunikazioak eta terapia ez farmakologikoen zainketa horiek hobetzen laguntzen dute. Erizainak, zaintzaile den aldetik, zeregin horietan rol garrantzitsua betetzen du.

**Ekarpen pertsonala:** Alzheimerra duen pertsona zaintzen dutenek maiz ezagutza eta formazio gehiago behar izaten dute gaixotasunaren nondik norakoei buruz. Hori dela eta, zainketa plan estandarizatu bat eskuragarri izatea garrantzitsua da, beti ere kontuan izanik zainketak indibidualizatu egin behar direla. Zaintzaileak formazio handia izan behar du pertsonari kalitate oneneko zainketa integralak eman ahal izateko.



## **AURKIBIDEA**

1. SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA .....	1
2. HELBURUAK.....	3
3. METODOLOGIA .....	4
4. HELBURUEN GARAPENA .....	8
4.1. Alzheimer gaixotasunaren patologia eta zeinuak fase desberdinetan. ....	8
4.2. Alzheimerrak pertsonarengan eragiten dituen komunikazio arazoak. ....	10
4.3. Alzheimerra duen pertsonarekin komunikatzeko estrategia eraginkorrak.....	11
4.4. Alzheimerra duen pertsona zaintzeko erabil daitezkeen terapia ez farmakologikoen eraginkortasuna.....	13
4.5. Alzheimerra duen pertsonari zainketak emateko, erizaintzako zainketa plan estandarizatua.....	17
4.6. Alzheimerra duen pertsona batentzako erizaintzako zainketa plan indibidualizatua. ....	18
5. EZTABAIDA .....	27
6. ONDORIOAK.....	29
7. EKARPEN PERTSONALA.....	30
8. BIBLIOGRAFIA.....	31



## **TAULEN AURKIBIDEA**

1. Taula: artikuluak hautatzeko irizpideak.....	4
2. Taula: datu baseetako bilaketaren emaitzak.....	5
3. Taula: web orrietako bilaketaren emaitzak.....	6
4. Taula: Pelloren baloraziotik ateratako datuak.....	19

## **ERANSKINEN AURKIBIDEA**

1. Eranskina: lana burutzeko datu baseetatik aukeratu diren artikuluak.....	37
2. Eranskina: balioztatze metodoaren printzipio teorikoak.....	41
3. Eranskina: desorientazioaren faseen ezaugarri fisiko eta psikologikoak.....	42
4. Eranskina: balioztatze bidezko tratamendu indibidualaren plana.....	44
5. Eranskina: balorazioa osatzeko eskalak.....	45
6. Eranskina: Alzheimerra duen pertsonaren ohiko dependentzia-agerpenak eta horien sorburua.....	51
7. Eranskina: Alzheimer gaixotasuna duen pertsonaren ohiko erizaintza diagnostikoak.....	56
8. Eranskina: erizaintzako zainketa plan estandarizatua.....	58
9. Eranskina: balioztatze indibidualaren teknikak.....	85
10. Eranskina: zainketa plan indibidualizatuaren balorazioan erabilitako eskalak...	87
11. Eranskina: zainketa plan indibidualizatuko erizaintza diagnostikoak eta arazo interdependenteak.....	93





## 1. SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA

XX. mendetik hona baldintza ekonomikoek, teknologikoek eta osasun arlokoek aurrerapen nabarmena izan dute herrialde garatuetan eta garapen bidean daudenetan. Horrek biztanleriaren bizi kalitatea hobetzea, bizi itxaropena luzatzea, jaiotze-tasa murriztea eta biztanleria zahartzea dakar (1, 2).

2015eko datuen arabera, munduan 60 urtetik gorako ia 900 milioi pertsona daude (3) eta Espainia Europan gehien zahartuta dauden estatuen artean zazpigarrena da (4). Ondorioz, adinarekin lotura duten gaixotasun kronikoak areagotzen ari dira, horien artean dementzia (1, 3).

Dementzia sindrome kliniko bat da, funtzio kognitiboen narriadura progresiboa ezaugarritzat duena eta pertsonaren autonomia progresiboki murrizten duena (1, 2, 4). Asaldurak sortzen ditu, besteak beste, oroimenean, pentsamenduan, ulermenean, orientazioan, hizkeran eta jokabidean (1). Eguneroko bizitzako jarduerak egiteko mailaz mailako mendekotasuna, komorbilitate handiagoa eta zaintzailearen gaitzakeria ere eragiten ditu. Horrek guztiak pertsonaren bizi-kalitatea murriztea dakar (5).

Ikerketa epidemiologikoen baiezta dutenez, dementziaren arrisku faktore nagusia adina da (4). Izan ere, intzidentzia (gaixotasunaren kasu berrien kopurua denbora tarte batean) adinarekin esponentzialki hazten doa (1, 3). Horrela, 65 urtetik aurrera 5 urtero intzidentzia eta prebalentzia (momentu jakin batean biztanleria osotik gaixo dagoen pertsonen ehunekoa) bikoizten joaten da (4). Intzidentzia handiagoa da diru-sarrera handiak dituzten estatuetan, ertainak edo baxuak dituztenetan baino (3).

Munduan 2015. urtean 46,8 milioi pertsonak dementzia pairatzen zuten. Kopuru hori 2030. urterako 74,7 milioira eta 2050. urterako 131,5 milioira igoko dela pentsatzen da (1, 3). Espainian, ikerketa epidemiologikoen arabera, dementziaren prebalentzia 65 urtetik gorako biztanleetan %5-14,9 artekoa da. Prebalentzia emakumeetan handiagoa da eta adinarekin hazten joaten da (4).

Guztira 100 dementzia mota baino gehiago daude (5) eta ohikoena Alzheimerra da, Europan dementzien kasuen %60-70 izanik (4). Alzheimerra gaixotasun neurodegeneratiboa, progresiboa eta itzulezina da, jatorri ezezaguneko (6).

Alzheimerra lehen aldiz Alois Alzheimer (1864-1915) neurologo alemanak deskribatu zuen 1906n (6). Lau urte eta erdiz pairatutako gaixotasun baten ondorioz (7) hil zen 51 urteko emakume baten garuna aztertzen ari zela, neuronetan bihurritutako filamentuak eta garun azalean substantzia bereizgarri bat antzeman zituen. Garun ehuneko ezohiko aldaketa horiek ordura artean deskribatu gabeak ziren (8-10). Aldaketa horiek gaixotasunaren zeinu bereizgarriak dira (6). Garun-azaleko ezohiko gaixotasun baten

aurrean zegoela ondorioztatu zuen (9).

Beste dementzietan bezala, Alzheimerren arrisku faktore nagusia adina da. Ikerketa batzuek diotenez, emakume izatea ere arrisku faktorea da. Beste ikerketa batzuek, ordea, lotura hori ez dute antzeman adin aurreratua arte (4).

Alzheimerren prebalentzia Europan %0,6-0,7koa da 65-69 urteko biztanlerian (kopuru hori adinarekin hazten doa). Espainian, berriz, %6koa da 70 urtetik gorako biztanlerian (4).

Dementia, adineko pertsonetan dependentzia eta ezgaitasun handiena sortzen duen osasun arazoa da (5). Hala ere, gaixoarengan ez ezik, familiarrengan, lagunengan eta inguru sozialarengan ere eragina du (2, 3). Espainian familia da gaixoa zaintzeaz arduratzen den erakunde nagusia (kasuen %80). Horrek familiarrengan kalte morala, fisikoa eta ekonomikoa sortzen ditu (4). Zenbaitetan familiek pertsonaren kargu egiteari uzten diote, gaixoak eguneroko bizitzako jarduerak egiteko etxekoen laguntza nahikoa ez duenean. Gaixoa egoitza batean ingratzen dute, hau da, instituzionalizazioa gertatzen da. Bertan, profesional trebatuen arreta eta zainketa jarraituak jaso ahal izango ditu (2, 7).

Osasun profesionalek ematen duten arretaren helburu nagusienetakoa, pertsonaren autonomia ahal den neurrian mantentzea da. Horrela, gaixoaren eta familiarren bizi-kalitatea hobetzea eta zaintzailearen gainkarga murriztea lor daiteke (2).

Aurretik aipatutako datuei nahiz ikerketen aurreikuspenei erreparatuz gero, dementia eta Alzheimer gaixotasuna egungo gizartearen osasun-arazo nagusienetakoak direla esan daiteke (2, 4, 5).

Gradu Amaierako Lana burutzeko gai hau aukeratzearen arrazoiak bi dira. Lehena, gaixotasunarekiko betidanik izan dudana interesa da; gizartearentzat eta osasun sistemarentzat Alzheimerren erroka handia dela iruditzen baitzait. Izan ere, oraindik ez da guztiz ezaguna eta momentuz sendabiderik aurkitu ez denez, gaixoak ahalik eta bizi-kalitate onena izateak garrantzia handia hartzen du. Bigarrena, Erizaintzako Gradu 4. mailan zahar egoitzan egindako praktikak dira. Bertan, praktika asistentzian erabiltzen duten Pertsonen Zentratutako Eredu Asistentziala erakutsi zidaten. Gainera, erizainak pertsona horien zainketa burutzen duen lana handia eta zoragarria hurbiletik ezagutu ahal izan nuen. Praktika horiek burutu ostean, Alzheimer gaixotasuna pairatzen duten pertsonari gertatzen zaiona zehatzago jakiteko eta bere beharrei etorkizun hurbilean erizain bezala nola erantzun behar izango diodan ezagutzeko motibazio gehiago piztu zitzaidan. Horren guztiaren ondorioz, lan honetan Alzheimerren duten pertsonen eskaini beharreko zainketa integralak landuko ditut.

## **2. HELBURUAK**

Lan honekin helburu hauek lortu nahi dira:

### **Helburu orokorra.**

Alzheimer gaixotasuna duen pertsonaren beharrei erantzuteko eskaini beharreko zainketa integralak proposatzea, pertsonak ahalik eta bizi-kalitate onena eta autonomia handiena izan dezan.

### **Helburu espezifikoak.**

- ❖ Alzheimer gaixotasunaren patologia eta zeinuak deskribatzea.
- ❖ Alzheimerrek pertsonarengan eragiten dituen komunikazio arazoak deskribatzea.
- ❖ Alzheimerra duen pertsonarekin komunikatzeko estrategia eraginkorrak zein diren azaltzea.
- ❖ Alzheimerra duen pertsona zaintzeko erabil daitezkeen terapia ez farmakologikoen eraginkortasuna aztertzea.
- ❖ Alzheimerra duen pertsonari zainketak emateko, erizaintzako zainketa plan estandarizatua proposatzea.
- ❖ Alzheimerra duen pertsona batentzako, erizaintzako zainketa plan indibidualizatua garatzea.

### 3. METODOLOGIA

Lan honetan, alde batetik berrikuspen narratiboa egin da eta bestetik, erizaintza prozesua aplikatuz zainketa planak aurkeztu dira.

Informazio iturriei dagokionez, alde batetik datu base ezberdinetan bilaketa bibliografikoa egin da. Erabili diren datu baseak honakoak dira: Biblioteca Virtual en Salud (BVS), PubMed, Biblioteca Cochrane Plus eta Cuiden.

Bilaketa bibliografikoa egin baino lehen, erabili diren iragazkiak zehaztu dira:

- ❖ Urteak: 2010-2016
- ❖ Hizkuntza: ingelesa, gaztelania.
- ❖ Testu osoa eskuragarri izatea.
- ❖ Mota: berrikuspen bibliografikoa, berrikuspen sistematikoa, entsegu klinikoa, gida, protokoloa, ikerketa, txostena.

Halaber, artikulua hautatzeko erabili diren aukeratze eta baztertze irizpideak zein diren adierazi da (Ikus 1. taula).

1. Taula: artikulua hautatzeko irizpideak.	
AUKERATZE IRIZPIDEAK	BAZTERTZE IRIZPIDEAK
- Artikulua erizain ikuspuntutik idatzita egotea.	- Artikulua ikuspuntu medikutik idatzita egotea.
- Artikuluaren gai nagusia Alzheimer gaixotasuna izatea.	- Artikuluaren gai nagusia Alzheimer gaixotasuna ez izatea.
	- Alzheimerrarentzako farmakoen saio klinikoa izatea.
	- Iritzi artikulua izatea.

Behin irizpide horiek finkatuta, datu baseetan bilaketa bibliografikoa egin da. Horretarako, DeCs eta MeSH terminoak edo beraien sinonimoak erabili dira: *alzheimer disease (enfermedad de alzheimer)*, *pathophysiology (fisiopatología)*, *signs and symptoms (signos y síntomas)*, *complementary therapies (terapias complementarias)*, *music therapy (musicoterapia)*, *aromatherapy (aromaterapia)*, *communication (comunicación)*, *nursing (enfermería)*, *nursing care (atención de enfermería)*. Termino horiek *and* hitzarekin batera erabili dira, bilaketa egiteko.

Datu baseetan egindako bilaketa bibliografikoaren emaitzak 2. taulan ikus daitezke.

Datu base bakoitzean bilaketa eginda lortu den emaitzari iragazkiak eta aukeratze eta baztertze irizpideak aplikatu zaizkio, proposatutako helburuak betetzeko artikulua egokienak aurkitu ahal izateko. Lortutako artikuluen laburpena eta zenbaitetan artikulua osoa (artikulua motza bada) irakurri da. Lana burutzeko datu baseetatik 30 artikulua aukeratu dira. Artikulu horietako batzuk datu base ezberdinetan errepikatzen zirenez,

azkenean bilaketa 23 artikulurekin amaitu da. Lana burutzeko aukeratu diren artikulua taula batean adierazi dira, bakoitzari buruzko zehaztapen batekin (1. Eranskina).

**2. Taula:** datu baseetako bilaketaren emaitzak.

DATU BASEA	BILAKETA ESTRATEGIA	AURKITUTAKO ARTIKULUAK	IRAGAZKIAK ETA IRIZPIDEAK APLIKATU OSTEAN	AUKERATUTAKO ARTIKULUAK
<i>BVS</i> *	alzheimer disease AND physiopathology	87	21	2
<i>PubMed</i>		10.485	345	1
<i>Biblioteca Cochrane Plus</i>		416	89	1
<i>Cuiden</i>		1	1	1
<i>BVS</i> †	alzheimer disease AND signs and symptoms	10.332	495	2
<i>PubMed</i>		3.429	159	1
<i>Biblioteca Cochrane Plus</i>		64	10	0
<i>Cuiden</i> †		13	2	0
<i>BVS</i>	alzheimer disease AND complementary therapies	36	7	1
<i>PubMed</i>		397	54	3
<i>Biblioteca Cochrane Plus</i>		14	2	0
<i>Cuiden</i>		3	0	0
<i>BVS</i>	alzheimer disease AND music therapy	53	12	3
<i>PubMed</i>		67	9	1
<i>Biblioteca Cochrane Plus</i>		44	16	2
<i>Cuiden</i>		6	1	1
<i>BVS</i>	alzheimer disease AND aromatherapy	4	2 ‡	1 ‡
<i>PubMed</i>		8	3 ‡	1 ‡
<i>Biblioteca Cochrane Plus</i>		11	3 ‡	1 ‡
<i>Cuiden</i>		0	0	0
<i>BVS</i>	alzheimer disease AND communication	685	182	3
<i>PubMed</i>		953	27	1
<i>Biblioteca Cochrane Plus</i>		123	36	1
<i>Cuiden</i>		30	8	0
<i>BVS</i>	alzheimer disease AND communication AND nursing	76	0	0
<i>PubMed</i>		8	1	0
<i>Biblioteca Cochrane Plus</i>		45	6	0
<i>Cuiden</i>		14	5	0
<i>BVS</i>	alzheimer disease AND nursing care	957	14	2
<i>PubMed</i>		742	9	1
<i>Biblioteca Cochrane Plus</i>		319	34	0
<i>Cuiden</i>		8	2	0

\* *pathophysiology* erabili da. † *symptoms* erabili da. ‡ 2009. urtea ontzat eman da (lana burutzeko artikulua interesgarria. Iragazkian 2009-2016 tartea jarriz lortu da).

Bestalde, arlo geriatrikoan eta demenzia gaixotasunean adituak diren web orriak

erabili dira:

- ❖ ADI (*Alzheimer's Disease International*)
- ❖ CEAFA (*Confederación Española de Asociaciones de Familiares de personas con Alzheimer y otras Demencias*)
- ❖ CRE Alzheimer (*Centro de Referencia Estatal de Atención a Personas con Enfermedad de Alzheimer y otras Demencias en Salamanca*)

Horiez gain, osasun arloko beste web orri hauek ere erabili dira:

- ❖ WHO (*World Health Organization*)
- ❖ Centro Colaborador Español del Instituto Joanna Briggs para los Cuidados de Salud Basados en la Evidencia
- ❖ Fundación Reina Sofía
- ❖ GuiaSalud Biblioteca (*Biblioteca de Guías de Práctica Clínica del Sistema Nacional de Salud*)

Web orriekin bukatzeko, hauek ere erabili dira:

- ❖ Kanariar Gobernuaren web orria (BVS datu basean aurkitutako artikuluko batek (11) 2002-2011 artean gaztelaniaz publikatutako Alzheimer gaixotasunaren giden berrikuspen sistematikoa burutzen du eta guztietatik bi gida nabarmentzen ditu. Gida horiek, GuiaSalud Biblioteca eta Kanariar Gobernuaren web orrialdeen bitartez lortu dira).
- ❖ Lehiakortasun eta Ekonomia Ministerioko web orria (publikazio interesgarriak ikusgai daudenez, erabili egin da).

Web orri horietan bilaketak era orokorrean egin dira. Bilaketa egiteko aukera eman ezker, DeCs eta MeSH terminoak edo horien sinonimoak erabili dira. Publikazio berrienei lehentasuna eman zaio. Web orrietatik denetara 12 artikulua aukeratu dira (Ikus 3. Taula).

<b>3. Taula: web orrietako bilaketaren emaitzak.</b>	
<b>WEB ORRIA</b>	<b>ARTIKULU KOPURUA</b>
<i>ADI</i>	3
<i>CEAFA</i>	1
<i>CRE Alzheimer</i>	2
<i>WHO</i>	1
<i>Centro Colaborador Español del Instituto Joanna Briggs para los Cuidados de Salud Basados en la Evidencia</i>	1
<i>Fundación Reina Sofía</i>	1
<i>GuiaSalud Biblioteca</i>	1
<i>Kanariar Gobernu</i>	1
<i>Lehiakortasun eta Ekonomia Ministerioa</i>	1

Informazio iturriekin bukatzeko, lanean hiru liburu erabili dira. Alde batetik, UPV/EHUko liburutegitik bi liburu lortu dira, erizain zainketen arloa lantzeko baliagarriak direlakoan: *Enfermedad de Alzheimer y calidad de vida* eta *El Alzheimer. Un reto para la enfermería*. Bestalde, zahar egoitzan egindako praktika zikloan erizainek gomendatutako liburuko edukia erabili da, komunikazio estrategia eraginkorrek deskribatzeko: *Validación: un método para ayudar a las personas mayores desorientadas*.

Zainketa planak burutzeko, erizaintzako metodologia erabili da. Bertan, Erizaintza Prozesua erabiltzen da, bere bost etapekin: erizain balorazioa, erizain diagnostikoak, planifikazioa, lana ekitea eta ebaluazioa. Horretan guztian laguntzeko, NNNConsult online plataforma erabili da, Virginia Hendersonek proposatutako gizakiaren oinarritzko 14 beharrak oinarri izanik.

Halaber, lau gida erabili dira. *Guía de Práctica Clínica sobre la Atención Integral a las Personas con Enfermedad de Alzheimer y otras Demencias* da eta *Manual de Actuación en la enfermedad de Alzheimer y otras Demencias* gidak arestian aipatutako BVSko giden berrikuspen sistematikoan (11) nabarmentzen dira. *Guía de orientación en la práctica profesional de la valoración reglamentaria de la situación de dependencia en personas con enfermedad de Alzheimer y otras demencias* CRE Alzheimer web orritik eta *Guía práctica para profesionales que trabajan con enfermos de Alzheimer* Fundación Reina Sofía web orritik lortu dira.

Beraz, lana burutzeko honakoak erabili dira:

- ❖ Datu baseetatik: 23 artikulua
- ❖ Web orrietatik: 12 artikulua
- ❖ Liburuak: 3
- ❖ Erizaintzako metodologia
- ❖ NNNConsult online plataforma
- ❖ Gidak: 4

## 4. HELBURUEN GARAPENA

### 4.1. Alzheimer gaixotasunaren patologia eta zeinuak fase desberdinetan.

Alzheimer gaixotasun neurodegeneratiboa, progresiboa eta itzulezina da (12). Ezaugarri nagusia funtzio kognitiboen narriadura progresiboa da, gehienbat oroimen galeran antzeman daitekeena eta pertsonaren eguneroko bizitzako jardueretan zuzenean eragiten duena (13). Mailaz-mailako autonomia galera sortzen du eta pertsonaren bizi-itxaropena eta bizi-kalitatea murrizten ditu (13, 14).

Gaixotasunak sorrera goiztiarra duela esaten da, lehen sintomak pertsonak 65 urte izan baino lehen azaltzen direnean. Kasuen %5 soilik da eta mutazio genetikoaren ondorioz gertatzen da (13). Mutazio horiek amiloidearen proteina aitzindariaren (APP) genean gertatzen dira (14). Mutazio horietako gehienek amiloide  $\beta$  ( $A\beta$ ) peptidoak gehiegi sortzea edo  $A\beta$  deuseztatzeko mekanismoek huts egitea eragiten dute. Ondorio gisa, garunean ezohiko  $A\beta$  metaketa gertatzen da. Gaixotasunak sorrera berantiarra du, 65 urtetik aurrera azaltzen denean. Kasuen %95 da eta arrisku faktore anitzak ditu, adina nagusia izanik (13). Alzheimer berantiarrean ez dago mutazio genetiko espezifikorik gaixotasunaren herentzia dakarrenik (15).

Gaixotasunaren iraupena aldagarria da. Izan ere, klinikoki lehen sintomak antzeman aurretik denbora tarte zehaztugabe batean zehar garatzen joaten da (15). Diagnostikoa egin ostean, batzuetan besteko bizi-itxaropena 7-10 urtekoa da (13, 15).

Alzheimer gaixotasunean garuneko azetilkolina neurotransmisorearen maila normalean baino baxuagoa da (16). Horrez gain, garuneko gune batzuetan ezohiko aldaketak gertatzen dira. Alde batetik, zelulaz kanpo (neuronan) *senil xafiak* daude.  $A\beta$  peptidoaren metatze patologikoz osatuta daude eta hori APPren ezohiko metabolismoaren emaitza da (12, 13). Senil xafien ondorioz, neuronan baldintza normalak asaldatzen dira (14). Bestalde, zelula barnean (neuronan) *haril neurofibrilarrak* daude (13). Tau proteina neuronalaren metatze patologikoz osatuta daude (12-14). Tau proteinaren fosforilazioan aldaketak gertatzeak bere funtzioa kaltetu eta behar baino gehiago metatzea eragiten du (17). Haril neurofibrilarren ondorioz, neuronak hiltzen dira (14).

Garuneko prozesu patogeniko hori gaixotasuna klinikoki azaldu baino urte batzuk lehenago hasten da. Epe aurre-kliniko horretan (narriadura kognitibo arina ere deitua), pixkanakako *endekapen sinaptikoa* (erdialdeko lobulu tenporalean) eta neuronan heriotza gertatzen da. Sinapsiak galtzea eta asaldatzea adinarekin erlazionatutako ohiko prozesua da, oroimena behar baino goizago galtzea eragiten duena. Zahartze-prozesu osasuntsuan, neuronan arteko konexio galtze horrek ez du neuronak galtzea



eragiten neurona kopuru jakin bat mantentzen den bitartean. Narriadura kognitibo arinean eta Alzheimer gaixotasunean, ordea, gune horietako neuronak sentikorrakoak izateak neuronen endekapena eta atrofia ekar dezake (13).

Gaixotasunaren hasierako faseetan, garuneko prozesu patogenikoa erdialdeko lobulu tenporalean, hipokanpoan eta hipokanpoaren zirkunboluzioan ikus daiteke. Egitura horiek oroimen prozesurako ezinbestekoak dira (12), informazioa gordetzeaz eta berria eskuratzeaz arduratzen baitira (8). Gaixotasunak aurrera egin ahala, endekapen prozesu hori beste prozesu kognitiboen arduradun diren garuneko eremuetara ere zabaltzen da (12). Esaterako, beheko lobulu parietalera. Izan ere, autopsietan amiloide plakak eta haril neurofibrilarrak bertan aurkitu izan dira. Gune horretako patologiak gaixotasunaren ezaugarri bereizgarria den oroimen galeran lagun dezake (18).

Gaixotasuna klinikoki ezaugarri desberdinak dituen hiru fasetatik igarotzen da. Horietako bakoitzak pertsonak duen narriadura maila adierazten du (7):

- ❖ **Lehen fasea (arina).** Hasierako zeinu nagusia, noizbehinkako oroimen galera da, informazio berria gordetzeko zailtasun handiagoan antzeman daitekeena (4). Epe motzeko oroimena galtzen da (7). Horrek bizitza profesionala, familiarra eta soziala behar bezala garatzea zailtzen du (10, 15). Laster, hitz egitean lehenengo huts egiteak (hitz egokiak aurkitzeko zailtasuna, esaldi motzagoak...) (10, 15, 19), gogo-aldartean aldaketak (7) (esaterako, bat-bateko umore aldaketak (10, 15)), pertsonalitate aldaketak (7, 13), jokabide kezkarri eta desegokiak (8), adimenaren asaldura eta pentsamendu desantolatua (10, 15) antzematen dira. Espazioan orientazio eza sortzen hasten da. Pertsona oraindik eguneroko bizitzako jarduerak burutzeko independentea da (7).
- ❖ **Bigarren fasea (moderatu).** Garuneko atalak kaltetu ahala, zeinuak okerragotzen joaten dira eta berriak azaltzen dira (15). Epe motzeko oroimenez gain, epe luzeko oroimena ere kaltetzen da (7). Espazioan eta denboran orientazio eza antzematen da (7, 10, 15). Mintzairan arazoak daude eta honakoak agertzen dira: afasia (ahoz esandako edo idatzitako hitzak ulertzeko ezintasuna), apraxia (helburu jakin bat lortzeko mugimendu koordinatuak burutzeko zailtasuna) eta agnosia (sentsazio sinpleak pertzepzioan bihurtzeko gaitasuna galtzea, pertsonak edo objektuak antzemateko zailtasuna sortuz) (7). Pertsona suminkorra egotea eta eraso jarrerak edukitzea gerta liteke (15). Pertsona oraindik inguru ezagunak eta familiarrak antzemateko gai da (7). Eguneroko bizitzako jarduerak burutzeko zailtasunak ditu (7, 8).
- ❖ **Hirugarren fasea (larria).** Pertsonak ingurukoak ez ditu ezagutzen (6, 7). Oroimen emozionala mantentzen du (zaintzen dion eta maite dion pertsonaz

ohartzen da) (19). Pertsonalitatea erabat galdua du eta narriadura intelektual larria du. Hitz batzuk soilik ongi esaten ditu eta esaten zaiona ia ez du ulertzen (19). Zeinu neurologiko motorrak azaltzen dira, esfinterren kontrola galtzen da (7) eta muskuluak gehiago gogortzen dira (6, 7). Depresioa eta paranoia bezalako jokabidezko sintomak azaltzen dira eta antsietatea, suminkortasuna eta agitazioa bezalako sintomak indartu egiten dira (15). Pertsonak eguneroko bizitzako jarduerak burutzeko erabateko menpekotasuna du (6, 7). Infekzioekiko, pneumoniarekiko eta ultzerekiko oso sentikorra bihurtzen da (7, 13) eta azkenean pertsona hil egiten da (7, 15).

#### **4.2. Alzheimerrak pertsonarengan eragiten dituen komunikazio arazoak.**

Komunikazioa giza erlazioen oinarria da, pentsamenduen, beharren eta sentimenduen hartu-emana baimentzen baitu (20). Alzheimer gaixotasunaren garapenean mintzaira eta komunikazioa progresiboki kaltetzen joaten dira (21, 22).

Gaixotasunaren hasierako etapan, komunikazio arazoak hitz edo izen egokiak aurkitzeko zailtasun handiago batean oinarritzen dira (21, 23). Irakurmena, idazmena eta ulermena ez dira askorik kaltetzen (21).

Gaixotasunak aurrera egin ahala, honakoak agertzen dira: arazoak hitzak antolatzeko, elkarrizketa konplexuak ulertzeko eta idazteko (20-22). Egoera sozialetan, pertsonak behar ez den momentuan hitz egin dezake, altuegi (20) eta ideien errepikapenekin (23). Ahozko irakurmena oraindik kaltetu gabe du (21).

Gaixotasunaren etapa aurreratuan, komunikazio arazoak nabarmenagoak dira, adimen defizitagatik eta oroimen arazoengatik (21). Azken fasean pertsonak gutxi hitz egiten du (20, 23), zentzurik gabeko hitzak edo esaldiak esaten ditu (20) eta hiztegi murrizta du (23). Gainera, ahozkoa ez den komunikazioa gutxitua du eta besteena ongi interpretatzeko arazoak izan ditzake (21, 23). Zenbait kasutan, ordea, ez ahozko komunikazioa azken etapara arte mantentzen da eta hori komunikatzeko baliabide eraginkorra izan daiteke (21).

Komunikazioaren defizit horiek guztien ondorioz, pertsonak pentsamenduak eta beharrak komunikatzeko gaitasuna galtzen du (21). Beste pertsonekin elkar eragitea (7) eta zaintzaileekin, familiarrekin edo lagunekin erlazio pertsonalak mantentzea geroz eta zailago egiten zaio (21, 23). Bere autonomia progresiboki murrizten da (21) eta bakarrik senti daiteke (7, 21). Horrek guztiak alde batetik, frustrazioa eta estresa sortzen du gaixoarengan eta ingurukoengan (21) eta zaintzailearen ginkarga handitzen du (22). Bestetik, gaixoarengan jokabide arazoak ekartzen ditu; agitazioa,

besteak beste (20). Zaintzailearen eta gaixoaren arteko komunikazio ez eraginkorrak, gatazka, isolamendua edo depresioa ekar dezake (biengan edo pertsona bakarrarengan) eta pertsona gaixoa erakunde batean sartzea eragin dezake (22).

Komunikazioa hobetzeak gaixoentzat eta zaintzaileentzat onurak ekartzen ditu. Izan ere, gaixoaren bizi-kalitatea handitzen du eta ingurukoekin komunikatzea nahiz denbora tarte luzeago batez errutina sozialak aurrera eramatea ahalbidetzen du. Estimulazio sozial horrek jokabidezko arazo gutxiago agertzea eragin dezake. Halaber, komunikazioa hobetzeak estresa gutxitzen eta ondorioz, jasotako arreta hobetzen lagun dezake (21).

### **4.3. Alzheimerra duen pertsonarekin komunikatzeko estrategia eraginkorrak.**

Metodo edo estrategia ezberdinak proposatu dira zaintzailearen eta gaixoaren arteko komunikazio egokia indartzeko.

Berrikuspen sistematiko batek ondorioztatzen duenez (22), oroimenaren laguntza zaintzailearen heziketa eta entrenamenduekin konbinatzean, emaitza onak lortzen dira. Oroimenaren laguntza informazio biografikoan, familiakoak agertzen diren argazkietan eta pertsonaren bizitzako gertaera garrantzitsuenen deskribapenean oinarritzen da. Zaintzailearen heziketa eta entrenamendua, berriz, komunikatzeko estrategia eraginkorrak zein diren ikastean oinarritzen da.

Komunikatzeko beste estrategia eraginkor bat balioztatze metodoa da. Dementia duen 80 urtetik gorako pertsona desorientatuarekin komunikatzeko metodo bat da, Naomi Feilek 1963-1980 urteen artean garatutakoa. Hilabete batzuek metodo hori aplikatu ostean, emaitza positiboak antzematen dira; esaterako, komunikazio patroiak hobetzea eta agresibitatea, negarrak eta mugimendu errepikakorrak murriztea (9).

Metodo horrek pertsonaren helburuak lortzen eta duintasuna berreskuratzen laguntzen du. Helburuak hauek dira: ahozko eta ez-ahozko komunikazioa handitzea; negarrak, mugimendu errepikakorrak, agresibitatea eta estresa murriztea; itxura eta ongizate fisikoa hobetzea; osatu gabeko gatazkak konpontzeko lan egitea eta azken bizi-zeregina (bakean hiltzea) betetzen laguntzea; murrizte fisiko gutxiago behar izatea (9).

Balioztatze metodoak enpatia erabiltzen du pertsona desorientatuaren barne errealitatearekin sintonizatzeko eta beraren beharrak (identitatea, maitasuna eta balioztatzea) asetzen laguntzeko. Izan ere, enpatiak konfiantza handitzen du, horrek segurtasuna areagotzen du, segurtasunak indarra ekartzen du, indarrak erabilgarri izatearen sentimendua berritzen du eta horrek estresa murrizten du. Beraz, enpatia erabiltzeak adinekoari bere sentsazioak hitzez adierazten laguntzen dio. Horrek

balioztatzen dio eta duintasuna berreskuratzen du (9).

Balioztatzea pertsona baten sentimenduak ezagutzea eta bere sentimenduak egia direla esatea da. Sentimenduak ukatzean pertsona baliogabetu egiten da. Aldiz, onartu, elkar banatu eta balioztatu ondoren, sentimendu bat desagertu daiteke (9).

Balioztatze metodoaren printzipio teorikoak eskola psikologiko konduktistek, analitikoek eta humanistek garatutako oinarritzko printzipioetan (9) oinarritzen dira (2. Eranskina).

Adineko pertsonak pairatzen duen orientazio ezaren atzean bi arrazoi daude. Lehena, galera fisikoa (ikusmena, entzumena, gertuko oroimena) da. Zahartze fisikoak gorputzeko ehuna progresiboki galtzea dakar. Hori ukatzeak adinekoa izatean pertsona fantasiako mundu batean murgiltzea eragiten du. Galera fisikoek oraina ezabatzen eta iragana berreskuratzen laguntzen dio adinekoari. Bigarrena, galera soziala da. Inguruko pertsonen heriotzak eta lana edo laneko rola galtzeak adinekoaren estimulazio soziala murrizten du. Pertsonak kanpotik jasotzen dituen estimuluak murrizten edo nuluak badira, identitatea galtzen du eta begetazio bizia hartzen du edo hiltzen da. Gainera, zenbaitetan pertsona zahartzarora iristen da bizitzan zehar izandako galera sozialak onartu gabe. Bere buruan babesten da, bakardadeak sortzen dion estresaren aurrean bizirauteko. Beraz, zahartzarora iristean pertsona batek duen jokabidea, ezbeharrei aurre egiteko garatu dituen metodoen eta galera fisiko nahiz sozialen araberakoa da (9).

Pertsona desorientatua Eriksonen deskribatutako bizitzako azken etapan dago: erresoluzioa begetazioaren aitzinean. Naomi Feilen arabera (9), pertsona hori lau fasetatik igarotzen da eta balioztatzea nahikoa da fase batetik bestera ez igarotzeko. Fase bakoitzak ezaugarri fisiko eta psikologiko bereizgarriak ditu (ikus 3. Eranskina).

Desorientazioa duen pertsonan balioztatze metodoa aplikatzeko hiru pausu daude (9):

- ❖ **Lehen pausua: informazioa jasotzea.** Hezitzaileak pertsona ezagutu behar du, hau da, bere oraina, iragana eta etorkizuneko itxaropenak zein diren jakin behar du. Horrek pertsonaren progresioa ebaluatzeko balioko dio. Informazioa jasotzeko hiru era daude: ahozko historiala osatzea, ezaugarri fisikoak behatzea eta familiarrei galdetzea.
- ❖ **Bigarren pausua: desorientazio fasea zehaztea.** Jasotako informazioa desorientazioaren lau faseen ezaugarri fisiko eta psikologikoekin alderatu behar da. Fasea ezagutzeak erabili behar diren balioztatze teknika egokienak aukeratzeko laguntzen du.
- ❖ **Hirugarren pausua: pertsonarekin maiz elkartzeko eta balioztatze teknikak aplikatzeko.** "Balioztatze bidezko tratamendu indibidualaren plana" (9) formularioa

bete (4. Eranskina). Pertsonarekin igaro behar den denbora hitz egiteko eta arreta jartzeko duen gaitasunaren araberakoa da. Interakzioak astean gutxienez hiru aldiz egin behar dira. Balioztatzea edozein gune lasaietan egin daiteke (medikazioa administratu bitartean, esaterako). Dena dela, beti kontuan hartu behar den gauza, intimitatea da. Berdinen arteko konfiantzazko erlazioa sortu behar da. Gainera, balioztatzea aurrera eramaten duen hezitzaileak: zentratua egon behar du, adinekoaren ezaugarri fisikoak behatu behar ditu, aktiboki entzun behar du, ez du "ekintzen egiazkotasuna" argumentu bezala erabiliko, ez du epaituko eta pertsonaren espazio pribatua (fisikoa eta psikologikoa) errespetatuko du.

Desorientazioaren fase bakoitzean erabili behar diren balioztatze indibidualaren teknikak (9) (9. Eranskina) 4.5 atalean deskribatuko dira, hau da, zainketa plan estandarizatuaren proposamenean.

#### **4.4. Alzheimerra duen pertsona zaintzeko erabil daitezkeen terapia ez farmakologikoen eraginkortasuna.**

Gaixotasunaren fase guztietan ezinbestekoa da gizakien oinarrizko beharrak (ongizatea, mugimendua, duintasuna, elkarrekintza soziala eta oinarrizko eskubideak) babestea. Oinarrizko beharrak eta konplexuagoak ere, ase behar dira, beti kontuan izanik demenzia duen pertsonak ikasteko, pentsatzeko, sententzioak esperimendatzeko eta maitatua eta zaindua sentitzeko beharra duela (24).

Alzheimerraren prozesu patologikoak eta gaixoaren beharrek, interbentzio sozialak, terapeutikoak eta ingurumenekoak aurrera eramateko aukera ematen dute (24). Gaur egun arte, ez da aurkitu gaixotasuna saihesteko edo prebenitzeko tratamendu zehatzik (13). Medikamentuek zeinu batzuen garapena moteltzen dute (24), hala nola, oroimen galera, jokabidezko sintomak eta loaren asaldura (25). Hala ere, gaixotasunaren zenbait zeinu tratatzeko sendagaiak duten eraginkortasuna murrizta da (24, 26) esaterako, funtzio kognitiboak tratatzeko (27). Horregatik, terapia ez farmakologikoak medikazio dosi baxuago batekin batera erabil daitezke. Horrela, medikamentuak erabiltzearen ondorioz sortzen diren efektu desira-gaitzak murriztea lortzen da (25).

Terapia ez farmakologikoa honela definitzen da: "kimikoa ez den edozein interbentzio, zentratua eta kopiagarria dena, oinarri teorikoa duena, pazientearengan edo zaintzailearengan burutzen dena eta onura nabarmena sortzeko gaitasuna duena" (10, 24). Gaixotasunaren fasearen arabera, terapia horiek ezberdinak dira eta erizainak zeregin garrantzitsua du (28).

Javier Olazarán et al-ek (24) 2010ean egindako berrikuspen sistematikoak erakusten duenez, terapia ez farmakologikoen Alzheimer moderatua edo larria duen pertsonan instituzionalizazioa atzera dezakete, eguneroko bizitzako oinarriko jardueretan hobekuntza sortzen dute eta pertsonaren nahiz familiarren bizi-kalitatea hobeto dezakete. Pauline Narme et al-ek (27) 2013n egindako entsegu klinikoak adierazten duenez, terapia ez farmakologikoen zaintzailearen gehiegizko gainkarga murriztu dezakete, pertsona gaixoaren egoera emozionala hobeto dezakete eta jokabidezko asalduren larritasuna murriztu dezakete. Johannah Uriri-Glover et al-ek (25) 2012n egindako berrikuspen bibliografikoak erakusten duenez, terapia ez farmakologikoen baliagarriak dira oroimen arazoak (aromaterapia erabiliz), jokabidezko sintomak (jokabide egokiekiko errefortzu positibo iraunkorra erabiliz eta jokabide desegokiak baztertuz) eta loaren asaldurak (aromaterapia erabiliz) tratatzeko Alzheimer gaixotasuna duen pertsonan.

Azken bi hamarkadetan interbentzio ez farmakologikoen asko garatu dira, hala nola, gaitasun kognitiboen entrenamendua, estimulazio sentzoriala, musikoterapia eta estimulazio motorra (11, 26). 2015eko berrikuspen bibliografiko baten arabera, gehien erabiltzen diren tratamendu ez farmakologikoen interbentzio kognitiboko programak dira, bereziki, estimulazio kognitiboa eta musikoterapia (28).

Interbentzio kognitiboko programa Alzheimer arina edo moderatua duen pertsonan eraginkorra da honakoak mantentzeko: funtzio kognitiboa, funtzionalitatea eta bizi-kalitatea (4).

Estimulazio kognitiboak diana bikoitza du: soziala eta kognitiboa (10). Beste terapiekin batera uztartzean (esaterako, erlaxazioa edo erreminiszentzia), orientazioa hobetzen dela ikusi da (24). Erreminiszentzia, pertsonaren bizitzaren berrikuspena da. Hau da, argazkien, musikaren edo beste elementuen laguntzarekin, pertsonak iraganeko aktibitateak, gertaerak eta esperientziak orainera ekartzen ditu (10). Helburua, oroimena hobetzea, sormena indartzea, gizarteratzea handitzea, auto-estimua handitzea eta ongizatea lortzea dira (4).

Gaitasun kognitiboen entrenamendua zeregin bat era errepikatuan praktikatzean oinarritzen da, domeinu kognitibo baten funtzionamendua hobetzeko edo mantentzeko. Arretarekin, oroimenarekin, mintzairarekin edo gaitasun exekutiboarekin erlacionatutako ariketa zehatz batzuk errepikatzen dira. Lortutako emaitzak, zeregin kognitiboetan pertsonak duen errendimendua neurtuz ebaluatzen dira (10).

Aromaterapian landareetatik ateratzen den olio esentzialen (izpilikua, erromeroa, limoia eta laranja) lurrina erabiltzen da. Ekintza, usain molekula hartzaile espezifiko batekin elkartzen denean hasten da. Usain molekula sudur barrunbetik igarotzen da eta

usaimen-epiteliora itsasten da. Estimulua hipokanpora eta amigdalara (sistema linbikoaren parte dira eta narriadura kognitiboarekin erlazionatuta daude) igortzen da, usaimen-epitelioan kokatuta dagoen usaimen nerbioaren bitartez. Nahiz eta prozesu hori funtzio kognitiboarekin zuzenki erlazionatuta egon, Alzheimerrean duen pertsona usaina antzematen da eta estimuluak informazioa hipotalamora bidaltzen du. Gero, sistema linbiko zentralak nerbio sistema autonomoaren eta barneko jariatze-sistemarengan eragiten du eta hipokanpoan eta amigdalari nahitaezko erreakzio batzuk sortzen dira. Laburki esanez, aromaterapia usain molekularren bitartez gertatzen den nahitaezko erreakzioen emaitza da (29).

Aromaterapiak abantailak ditu: ez da inbaditzailea, ez du efektu desira-gaitzik sortzen, merkea da eta era anitzetan administra daiteke: aho-bidez, inhalazioz, supositorio bidez, bainuen bidez, masaje bidez, zapi bidez eta krema edo olio bidez (25). Sumatutako efektua erabilitako olio esentzialen kantitatearen araberakoa da (29).

Aromaterapiak Alzheimerrean duen efektu garrantzitsua, funtzio kognitiboarekiko eragiten duena da, hobetzen baitu. Efektu nagusi horrez gain, ideia abstraktuak eratzeko gaitasuna handitzen du eta mugimenduak hobetzen ditu (29). Agitazioarekiko eta sintoma neuropsikiatrikoekiko ere efektu onuragarria du (25).

Alzheimer gaixotasunean izpiliku-laranja olio soluzioa (nerbio sistema parasinpatikoa aktibatzen du, lasaitzeko erabiltzen da) eta erromero-limoio olio soluzioa (nerbio sistema sinpatikoa aktibatzen du; depresioa baretzeko eta oroimena edo kontzentrazioa handitzeko erabiltzen da) nahasketa erabiltzen da. Izpilikuaren olioak lo asaldurak hobetzen ditu eta erromeroak oroimen eta lo asaldurak hobetzen ditu (25). Horrez gain, limoiaren olio esentzialak larruazal inguruko odol-hodien egoera hobetzen du. Olio horiek dituzten difusoreak pertsonaren logelan kokatzen dira (29).

Musikoterapia pertsonen osasun fisikoa eta psikikoa mantentzeko, hobetzeko edo berrezartzeko musika erabiltzea da (30). Alzheimerrean maneiatzeko rol garrantzitsua du (31), pertsonaren behar ezberdinengatik eragiten du eta gaixotasunaren fase guztietara egokitzen da (30).

Musikaren prozesamenduak neurona sare konplexua barne hartzen du. Sare horrek garuneko gune guztietatik informazioa jasotzen du: gune azpi-orbitaletik (guruin basala, akunbens nukleoa, gune bentral tegmentala, hipotalamoa, zerebeloa), gune kortikaletik (esaterako, erdialdeko kortex prefrontala) eta kortex orbita-frontaletik. Alzheimerrean garuneko gune horiek motelago kaltetzen dira, oroimenarekin zuzenean lotzen diren guneekin alderatuz gero (26, 32). Beraz, Alzheimer gaixotasunean musikaren prozesamendua mantentzen da, musikaren ezagutzarekin erlazionatuta dauden garuneko guneak neurri handi batean babestuta daudelako (32).

Musikoterapia teknika ezberdinak erabiltzen dira. Esaterako, abestea (33), "metodo harkorra" (musika entzutea), "metodo aktiboa" (musika instrumentuak jotzea) (31), joko musikalak, kantuak osatzea,... (33). Gehien erabiltzen dena, metodo harkor lasaigarria da (31).

Musikoterapiak sortzen dituen efektu onuragarriak anitzak dira. Alde batetik, pertsonaren egoera afektiboaren (26, 27) eta jokabide desegokien (16) alderdiak hobetzen ditu eta ongizate sentrazioa estimulatu du (9). Gainera, funtzio kognitiboak estimulatu ditu (adibidez, arreta, orientazioa, mintzaira edo oroimena) (33).

Bestalde, pertsonaren bizitzaren parte izan den musika bidezko estimulazioak pertsonaren auto-kontzientzia indartzen du (26). Izan ere, musika ezagunak iraganeko emozio bat, sentrazio bat edo oroitzapen bat gogora ekar dezake, Alzheimerra duen pertsonari segurtasun, identitate eta konfiantzazko sentimendua itzuliz (33). Auto-kontzientzia hobetzeaz gain, musika ezagunak egoera kognitibo orokorra ere indartzen du (16, 26, 28), zenbait erantzun afektibo ekartzen ditu (26, 27) eta pertsonari hitzez komunikatzen laguntzen dio (31).

Musikaren onura oroimenera ere zabaltzen da. Izan ere, nahiz eta pertsonak narriadura orokorra izan, musika bidezko terapia aurrera eraman bitartean pertsonaren gaitasunak eta oroimena mantentzen dira (27, 32). Gainera, ikusi da pertsonak abestutako letrak errazago antzematen dituela ahoz esandakoak baino (28, 32). Musika lasaigarria entzuteak oroimen autobiografikoa (27, 31, 32) eta oroimen semantikoa (26) hobetu dezake.

Halaber, kantuak abesteak arnas sistema estimulatu du eta oxigeno sarrera nahiz kontsumoa handitzen du, garunera oxigeno gehiago iristea eraginez. Horrek funtzio kognitiboa, arreta eta kontzentrazioa hobetzea dakar (30).

Bukatzeko, musikoterapiak sintoma neuropsikiatrikoetan onurak ekartzen ditu (26). Hala nola, agitazioa, apatia, depresioa edo antsietatea murrizteko balio du (16, 26, 31). Horren ondorioz, pazienteen autonomia handitzen du (31). Jokabide intrusiboak, estres maila eta zaintzaileen nekea murriztu ditzake eta bizi-kalitatea hobetzea lor dezake (34).

Musikoterapia sesioaren iraupena, hauen arabera da: pertsonaren arreta gaitasuna, kontzientzia maila eta agitazio maila. Alzheimer arina edo moderatua duten pertsonetan sesio bakoitza 45-55 minutukoa izatea eta Alzheimer aurreratua duten pertsonetan 15 minutu baino gehiagokoa ez izatea gomendatzen da. Interbentzioa burutzen den lekua ongi aireztatua egon behar du, soinu interferentziarik gabekoa eta pertsona guztiak sartzeko lekua duena (33).



#### **4.5. Alzheimerra duen pertsonari zainketak emateko, erizaintzako zainketa plan estandarizatua.**

Aurreko ataletan deskribatutako Alzheimer gaixotasunaren zeinuak eta komunikazio arazoak kontuan izanda, Alzheimerra duen pertsonentzako zainketak antolatzekeo abiapuntua izan daitekeen erizaintzako zainketa estandarizatua proposatuko da.

##### ***Erizain balorazioa.***

Balorazioa prozesu egituratua da (edukia eta metodologia zehaztua du), dinamikoa (denboran zehar jarraipena du eta pertsonaren egoerara egokitzen da), multidimentsionala (arlotan anitzak ebaluatzen ditu) eta diziplina anitzekoa (profesional ezberdinek parte hartzen dute). Pertsonaren arazoak, narriadura funtzionala eta beharrak identifikatzen ditu (2).

Pertsonaren balorazioa egiteko, eredu desberdinak erabili daitezke. Lan honetan Virginia Hendersonen ereduak erabili dira. Eredu horren arabera, gizakia izaki biologikoa, psikologikoa eta soziala da eta 14 oinarritzko behar ditu. Erizain zainketak, pertsonak indarra, borondatea edo ezagutza faltagatik bere kabuz aurrera eraman ezin dituen aktibitateak burutzeko asistentzia ematean oinarritzen dira. Helburua, pertsonaren independentzia-maila handitzea edo mantentzea (30), bizi-kalitatea hobetzea (35) eta bizitzaren amaierara arte ahalik eta duinenen bizitzea da (7).

Balorazio orokorra (fisikoa, funtzionala, kognitiboa eta soziala) egiteko datu bilketa egin da, elkarrizketa (anamnesia eta historial klinikoa) eta behaketa erabiliz. Pertsonak informazioa eman ezin badu, zaintzaile nagusiarengana edo familiarrengana jo behar da (10). Balorazioa kaltetutako domeinu kognitiboetan, gaixotasunaren garapenean, eguneroko bizitzako aktibitateetan eta bestelako sintoma ez kognitiboetan zentratu behar da (36). Balorazioa osatzeko, eskala hauek erabili dira: Barthel, Lobo-ren Mini Azterketa Kognitiboa (37, 38), Norton, Tinetti (37) eta MNA (39) (5. Eranskina).

Alzheimerra duen pertsonak 14 beharretako bakoitzean dituen dependentzia agerpen ohikoenak eta horien arrazoiak taula batean bildu dira (6. Eranskina).

Alzheimerra duen pertsonaren beharren balorazio jarraitua egin behar da (7, 35). Izan ere, gaixotasunak aurrera egin ahala arazo berriak azaltzen dira eta horrek ezarritako lehentasunak eta programatutako aktibitateak eraldatu behar izatea eragiten du (7).

##### ***Erizaintza-diagnostikoak.***

Balorazioarekin Alzheimerra duen pertsonaren beharrak eta gaitasunak identifikatu ondoren, ohiko erizain diagnostikoak planteatu dira, NANDA taxonomia erabiliz (40) (7. Eranskina).

##### ***Planifikazioa.***

Planteatu diren erizaintza-diagnostiko guztiak Alzheimerra duen pertsonan garrantzitsuak izan arren, batzuek besteek baino lehentasun handiagoa dute. Hori dela auto-zainketa indartzera (elikadura, gorputz-higienea, jantzi, komunaren erabilera), prozesua egonkortzera (ahozko komunikazioa, mugikortasun fisikoa, oroimena) eta kalitatezko bizia mantentzera (aisialdiko aktibitateak, bakardadea, lo patroia, idorreria, gernua kanporatzea, larruazalaren osotasuna, erorketak) bideratutako erizaintza diagnostikoak garatu dira (8. Eranskina).

Erizain diagnostiko bakoitzean pertsonak lortu behar dituen helburuak, pertsonarekin, familiar zuzenenarekin eta diziplina anitzeko taldearekin batera adostuta planteatu behar dira. Helburuak errealistak, neurgarriak eta denbora baten barruan ezarritakoak izango dira. Zainketa plan estandarizatuan planteatutako helburuak orokorrak izan dira.

Interbentzioak helburuak betetzera bideratutakoak izango dira. NNNConsult online plataformatik (40), bilaketa bibliografikoen emaitzetatik (ebidentzia adierazi duten jarduerak aukeratuz) eta zahar etxean egindako praktketan izandako esperientziatik atera dira. Interbentzioak holistikoak eta diziplina anitzekoak izan behar dira. Hau da, pertsona bakoitzaren beharrak kontuan hartuz planteatu behar dira eta elkarren artean koordinatuak dauden profesional ezberdinek parte hartu behar dute (10).

#### **4.6. Alzheimerra duen pertsona batentzako erizaintzako zainketa plan indibidualizatua.**

Alzheimer gaixotasuna duen pertsona bakoitzaren balorazio integrala eta diziplina anitzekoa egin behar da. Balorazio horren bidez, bere ezaugarriak eta baliabideak bilatuko dira, bere beharrak eta itxaropenak ezagutzeko eta ahalik eta arreta indibidualizatuena eskaintzeko (41). Hau da, zainketa plan estandarizatua kasu zehatz bakoitzean indibidualizatu egin behar da. Hori dela eta, zahar etxean egindako praktketan bizi izandako esperientzia kontuan hartuz, jarraian kasu hipotetiko bat garatuko da, erizaintza prozesu osoa aplikatuz.

##### ***Kasuaren azalpena.***

Pello 82 urteko gizona da, jaiotzez Nafarroako Arantza herrikoa. Arantzako Zahar egoitzan bizi da bere emaztearekin batera duela lau urtetik. Gaixotasun ugari pairatzen ditu, nabarmenena bigarren faseko Alzheimerra izanik. Emazteak, Josefinak, 76 urte ditu eta osasuntsu dago. 2012ko Otsailean zahar egoitzan ingesatu ziren emazteak senarraren zainketen ardura osoa bere esku hartzerik ez zuelako. Ordura arte baserrian bizituak ziren. Bi seme-alaba dituzte, Maria eta Patxi. Maria atzerrian bizi da lanagatik eta bertan osatu du familia. Data seinatuetan soilik etortzen da Arantzara.

Patxi Iruñean bizi da familiarekin. Erreferentziazko familiarra bera da. Asteburuetan Arantzako baserrira etortzen dira eta aitona-amonak bisitatzeko aprobetxatzen dute. Noiz edo noiz zahar egoitzatik atera eta baserrira eramaten dituzte.

Pellok arreba bat eta lau anai zituen, bera zaharrena izanik. Anaia gazteena (65 urte) eta arreba (67 urte) soilik daude bizirik, Arantzan bizi dira bakoitza bere familiarekin. Jubilatuak daudenez, astean zehar maiz joaten dira Pello eta Josefina bisitatzera.

14 urte bitarte Pello herrian bizitu zen. Gurasoei baserriko lanetan laguntzen zien eta ahal zuenean eskolara joaten zen. 14-23 urteen artean Frantzian lanean aritu zen, mendian. Han ezagutu zuen emaztea, Josefina. Arantzara bueltatu, ezkondu eta okindegia jarri zuten. Oso gustuko ogibidea zuen. 70 urte bete arte bertan aritu zen lanean. Gero, anai gazteenaren eskuetan utzi zuen negozioa.

Gaur egun Pellok ezin du zentrotik bakarrik atera. Zentroan, lorategian edo kalean gurgildun aulkian ibiltzen dute, baina tarteka altxatu eta norbaiten laguntzarekin ibiltzen da. Gaztetako lagun onena, Lorenzo, zentroan bizi da. Harekin solasaldi luzeak egiten ditu, garai zaharrak oroitzuz. Zentroko beste kideekin oso ongi moldatzen da, asko inguruko herrietakoak direnez ezagunak baititu.

Patologiak: Alzheimer gaixotasuna (II Fasea), HTA, II motako DM, Hipoakusia, Fibrilazio aurikular kronikoa. Alergiak: Penizilina. Aurrekariak: Gernu inkontinentzia, ezkerreko aldakaren haustura (2011ko abuztuan. Aldakako protesia darama). Tratamendu farmakologikoa: Donepezilo 10mg 0-0-1, Enalapril 10mg 0-0-1, Repaglinida 4mg 1-1-1, Acenocumarol 4mg 0-0-1, Omeprazol 20mg 1-0-0.

### **Balorazioa.**

Balorazio orokorra egiteko, datu bilketa egin da elkarrizketa (anamnesia eta historial klinikoa) eta behaketa erabiliz eta Virginia Hendersonek deskribatutako 14 beharretan oinarrituz. Balorazioa osatzeko, eskala hauek erabili dira: Barthel, Lobo-ren Mini Azterketa Kognitiboa (37, 38), Norton, Tinetti (37) eta MNA (39) (10. Eranskina). Datu horiek guztiak aztertu eta antolatu dira (ikus 4. Taula).

<b>4. Taula:</b> Pelloren baloraziotik ateratako datuak.			
<b>BEHARRA</b>	<b>INDEPENDENTZIA AGERPENAK</b>	<b>DEPENDENTZIA AGERPENAK</b>	<b>KONTUAN IZATEKOAK</b>
<b>1. Arnasa hartu</b>	- Ez du arnas arazorik.		- 4.4. atalean esandakoa kontuan izan: abesteak arnas sistema estimulatzen du eta O <sub>2</sub> sarrera eta kontsumoa handitzen du. Horrela, garunera O <sub>2</sub> gehiago iristen da eta funtzio kognitiboa, arreta eta kontzentrazioa hobetzen dira.

<b>...jarraitzen du... 4. Taula: Pelloren baloraziotik ateratako datuak.</b>			
<b>BEHARRA</b>	<b>INDEPENDENTZIA AGERPENAK</b>	<b>DEPENDENTZIA AGERPENAK</b>	<b>KONTUAN IZATEKOAK</b>
<b>2. Jan eta edan</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Janariari ez dio uko egiten: gehienetan dena jaten du.</li> <li>- Janariak eta likidoak irensteko ez du arazorik.</li> <li>- Likidoak lodigarri gabe hartzen ditu.</li> <li>- Mahai tresnak ongi erabiltzen ditu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Laguntza partziala behar du: janaria pusketan mozteko, medikazioa hartzeko</li> <li>- Egarri eta gose sentsazioaren gaitasuna murriztua du.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Proteina osagarria hartzen du 1-0-1.</li> <li>- Dieta: testura normala, errazio osoa.</li> <li>- Ordezko hortzeria du.</li> <li>- MNA eskalan 20,5 puntu atera ditu = malnutrizio arriskua (10.5. Eranskina).</li> </ul>
<b>3. Iraitzi</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Komunera joateko beharra gehienetan garaiz antzematen du eta eramateko eskatu egiten du.</li> <li>- Egunez ez du pixoihalik behar.</li> <li>- Pixa/gorotza egin ostean, gunea berak garbitzen du. Laguntza behar badu, eskatu egiten du.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Komunera joateko laguntza behar du, gurpildun aulkia norbaitek eraman behar baitio.</li> <li>- Gurpildun aulkitik altxatzeko eta komunean esertzeko laguntza partziala behar du.</li> <li>- Noizbehinka gernu/gorotz inkontinentzia du eta horrez ohartzen da.</li> <li>- Gaez pixoihala erabiltzen du.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Hesteetako patroia mantentzeko, Duphalac hartzen du 1-0-1.</li> </ul>
<b>4. Mugitu eta ezarrera egokia mantendu</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Egunero gurpildun aulkitik altxatu, zutik jarri eta minutu batzuek laguntzarekin oinez ibiltzeko gogoia du.</li> <li>- Zentroko gimnasia aktibitateetan gogoz parte hartzen du.</li> <li>- Ohean postura aldaketak berak egiten ditu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gurpildun aulkia norbaitek eraman behar dio lekualdatzeak egiteko.</li> <li>- Gurpildun aulkian denbora dezente eserita igarotzen du.</li> <li>- Oinez ibiltzeko laguntza behar du (pertsone bati/pasiloko barandari eusten da...).</li> <li>- Ibilera motela eta ezegonkorra du. Maiz atsedenak egiten ditu.</li> <li>- Ezin da zentrotik bakarrik atera.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gurpildun aulkia egoera onean mantendu.</li> </ul>
<b>5. Loa eta atsedenak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gehienetan lo patroia ona du: ez du lo egiteko medikaziorik hartu beharrik.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Zenbaitetan ordu gutxiz lo egiten du, emaztearen zurrungak direla eta esnatzen baita. Horrelakoetan, ez da deskantsatua sentitzen.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Logelan emaztearekin batera dago.</li> <li>- Bazkal ostean eta telebista piztuta dagoela 30 minutuko siesta egitea gustatzen zaio.</li> </ul>
<b>6. Jantzi eta erantzi</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Jantzi nahi duen arropa gehienetan berak aukeratzen du.</li> <li>- Laguntza behar badu, eskatzen du: arropa jantzi edo erantzeko, eguraldia edo urtaroarekin bat datorren arropa aukeratzeko...</li> <li>- Ez du arropa kentzen jarri ostean (jokabide desinhibitzaile ez).</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Laguntza partziala behar du: arropa jantzi eta erantzeko, botoiak/lokarriak askatzeko, oinetakoak jartzeko.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Igandetean mezara joateko arropa dotoreagoa jartzea gustatzen zaio.</li> <li>- Gaez pixoihala jarri behar zaio.</li> <li>- Arropa berria senideek ekartzen diote.</li> </ul>
<b>7. Tenperatura egokia mantendu</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ez du arazorik.</li> <li>- Hotza/beroa badu, jakitera ematen du eta horri aurre egiteko oinarrizko neurriak hartzen ditu (arropa gehiago jartzea edo arropa kentzea).</li> </ul>		

<b>...jarraitzen du... 4. Taula: Pelloren baloraziotik ateratako datuak.</b>			
<b>BEHARRA</b>	<b>INDEPENDENTZIA AGERPENAK</b>	<b>DEPENDENTZIA AGERPENAK</b>	<b>KONTUAN IZATEKOAK</b>
<b>8. Higienea eta larruazalaren osotasuna</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gorputz atal gehienak berak bakarrik garbitzen ditu.</li> <li>- Hortzak berak bakarrik garbitzen ditu.</li> <li>- Ilea berak orrazten du.</li> <li>- Ura beroegi/hotzegi badago, antzematen du. Txorrota irekitzeko gai da.</li> <li>- Laguntza behar badu, eskatu egiten du.</li> <li>- Larruazalak osotasuna mantentzen du.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Laguntza partziala behar du: bainugelara eraman behar zaio, dutxan aulkia erabiltzen du, iristen ez den guneak garbitu behar zaizkio (bizkar aldea...), bizarra/azazkalak moztu behar zaizkio (berak eginez gero, zauriak egiten ditu maiz), materialak prestatu behar zaizkio.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Egunero jaiki eta berehala dutxatzea gustatzen zaio. Lurrina erabiltzea gustuko du.</li> <li>- Larruazala behatu higiena egin aldiro.</li> <li>- Ile-apaindegira joateko beharra duenean identifikatu.</li> </ul>
<b>9. Arriskuak ekidin</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Objektuak, alfonbrak, eskailerak...antzematen ditu.</li> <li>- Espazioan oroimena mantentzen du.</li> <li>- Glukosa maila egokia mantentzen du aho bidezko medikazioarekin.</li> <li>- Iraganeko gertaerak ongi oroitzen ditu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Nahiko erraz estropezu egiten du.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Azken erorketa: 2015/09/24. Ondorio larririk gabe.</li> <li>- Tinetti eskalan 8 puntu lortu ditu = martxa eta oreka asaldatuak (10.4. Eranskina)</li> <li>- Denbora asko eserita egoten denez, presio-ultzerak izateko arriskua du</li> <li>- Norton eskalan 14 puntu lortu ditu = presio ultzera arriskua (10.3. Eranskina).</li> </ul>
<b>10. Komunikatu</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Irakurmena ez du kaltetua.</li> <li>- Ez ahozko komunikazio egokia du.</li> <li>- Idatzizko mintzaira erabiltzen du.</li> <li>- Emozioak adierazten ditu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Hipoakusia duenez, maiz ez du esaten zaiona ongi entzuten.</li> <li>- Elkarrizketa konplexuak ulertzeko/mantentzeko, hitzak antolatzeko eta pentsamenduak adierazteko arazoak ditu. Horrek asko kezkatzen dio eta frustrazioa sentitzen du.</li> <li>- Ez du hiztegi konplexua erabiltzen.</li> <li>- Ideiak errepikatzen ditu.</li> <li>- Izenekin zailtasunak ditu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ama hizkuntza: euskara. Gaztelaniaz nahiko ongi moldatzen da.</li> <li>- Altu hitz egin behar zaio hipoakusiagatik.</li> </ul>
<b>11. Sinesmen eta baloreekin adostasuna</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ohera joan aurretik, emaztearekin batera errezatzen du.</li> </ul>		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Katolikoa da. Igandetan mezara joatea gustatzen zaio. Emaztearekin eta beste egoiliar batzuekin batera joaten da, zentroko langileen laguntzarekin.</li> </ul>
<b>12. Lanarekin burutzapena lortu</b>			<ul style="list-style-type: none"> <li>- Erretiratu aurreko lanbidea: okina.</li> </ul>
<b>13. Dibertitu</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Zentroko aktibitateetan gogoz parte hartzen du: pintura tailerra, gimnasia, oroimen eta kalkulu ariketak...</li> <li>- Zentroan normalean ez da aspertzen. Aktibitateen bat egiten ez bada ari, lagunekin edo emaztearekin hizketan aritzen da.</li> </ul>		<ul style="list-style-type: none"> <li>- "Ttipi-ttapa" aldizkaria gustura irakurtzen du.</li> <li>- Telebistan dokumentalak eta bertsolariak ikustea gustatzen zaio.</li> <li>- Gaztetan matematiketan oso ona zen.</li> <li>- Mikel Laboaren kantuek gustuko ditu.</li> </ul>
<b>14. Ikasi</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Informazio edo gaitasun berriak atxikitzea kostatzen zaio.</li> </ul>	

Barthel eskalan 30 puntu lortu ditu = menpekotasun larria (10.1. Eranskina).

Lobo eskalan 20 puntu lortu ditu = narriadura kognitiboa (10.2. Eranskina).

Bizi-konstanteak: TA 149/75; AM 20; BM 75; SatO2 %98; T° 36.2

**Erizaintza diagnostikoak eta arazo interdependentek.**

Erizain balorazioarekin Pelloren beharrak eta gaitasunak identifikatu ondoren, erizain diagnostikoak eta arazo interdependentek planteatu dira, NANDA taxonomia erabiliz (40) (11. Eranskina).

**Planifikazioa.**

Planteatutako erizain diagnostiko guztiak garrantzitsuak izan arren, Pelloren egoera, zahar etxekeo baliabideak eta ingurua kontuan hartuz, batzuek besteek baino lehentasun handiagoa dutela ikusi da. Ondorioz, bi erizaintza diagnostiko garatzen hasi da: *Ahozko komunikazioaren asaldura* (komunikazio eraginkorra ez izateak asko kezkatzen diolako, frustratua sentitzen delako eta zentroko profesionalak komunikazio estrategia eraginkorrak erabiltzeko formazioa dutelako) eta *Mugikortasun fisikoaren narriadura* (gehienbat gurpildun aulkian ibiltzen bada ere, oinez orain arte baino gehiago ibiltzeko asmoa erakutsi duelako eta hobekuntza lortzea posible ikusten delako). Helburuak lortu ahala, gainerako diagnostikoak aurrera eramango dira.

Zainketa plan estandarizatuan Alzheimerra duen pertsonan ager daitezkeen erizain diagnostiko ohikoenak aipatu dira. Zainketa plan indibidualean, diagnostiko horiek oinarri bezala erabili dira eta Pelloren beharretara eta ingurura egokitu dira. Helburuak (errealistak, neurgarriak, denboran zehaztuak) ahal den heinean egoiliarrekin eta familiarrekin (emaztea, seme-alabak edo senideak) edota diziplina anitzeko taldearekin planteatu dira. Interbentzioak, berriz, NNNConsult online plataformatik (40), bilaketa bibliografikoen emaitzetatik (ebidentzia adierazi duten jarduerak aukeratuz) eta zahar etxean egindako praktketan izandako esperientziatik atera dira.

<b>[00051] Ahozko komunikazioaren asaldura, Alzheimer gaixotasunarekin erlazionatua eta pentsamenduak adierazteko, hitzak antolatzeke eta elkarrizketa konplexuak mantentzeko zailtasunarekin eta ideiak errepikatzearekin azaltzen dena.</b>						
<b>[0902] Helburua:</b> Pellok hilabete bat barru, ahozko/idatzizko/ez ahozko mezuak era eraginkorrago batean hartu, interpretatu eta adierazteko gai dela erakutsiko du, erizainarekin elkarrizketa bat mantenduz.						
<b>INDIKATZAILEAK:</b>						
- [90201] Idatzizko mintzaira erabiltzen du.		1	2	3	4	5
Balorazio eskala (a): 1. larriki konprometitua; 2. substantzialki konprometitua; 3. neurritz konprometitua; 4. arinki konprometitua; 5. ez konprometitua.	ORAIN				X	
	LORTU NAHI DENA				X	
- [90202] Ahozko mintzaira erabiltzen du.		1	2	3	4	5
Balorazio eskala (a)	ORAIN			X		
	LORTU NAHI DENA				X	

**...jarraitzen du... [00051] Ahozko komunikazioaren asaldura, Alzheimer gaixotasunarekin erlazionatua eta pentsamenduak adierazteko, hitzak antolatze eta elkarrizketa konplexuak mantentzeko zailtasunarekin eta ideiak errepikatzearekin azaltzen dena.**

**[0902] Helburua:** Pellok hilabete bat barru, ahozko/idatzizko/ez ahozko mezuak era eraginkorrago batean hartu, interpretatu eta adierazteko gai dela erakutsiko du, erizainarekin elkarrizketa bat mantenduz.

**INDIKATZAILEAK:**

- [90204] Zeinuen bidezko mintzaira erabiltzen du.		1	2	3	4	5
Balorazio eskala (a)	ORAIN				X	
	LORTU NAHI DENA				X	
- [90205] Ez ahozko mintzaira erabiltzen du.		1	2	3	4	5
Balorazio eskala (a)	ORAIN					X
	LORTU NAHI DENA					X
- [90206] Jasotzen dituen mezuak era egokian ulertzen ditu.		1	2	3	4	5
Balorazio eskala (a)	ORAIN			X		
	LORTU NAHI DENA				X	
- [90207] Mezuak era egokian ematen ditu.		1	2	3	4	5
Balorazio eskala (a)	ORAIN			X		
	LORTU NAHI DENA				X	
- [90208] Besteekin mezuak elkar banatzen ditu.		1	2	3	4	5
Balorazio eskala (a)	ORAIN				X	
	LORTU NAHI DENA				X	

**ERIZAIN-INTERBENTZIOAK.**

**1) [4976] Komunikazioa hobetzea:** Pelloren komunikazio gaitasunak hobetzeko estrategia eraginkorrak erabiltzea.

**Jarduerak:** (Osasun profesional guztiak = OP), Josefina = J, Familiarrak = F)

- Balioztatze metodoa aplikatzeko hiru pausuak jarraitu: informazioa jaso, desorientazio fasea zehaztu eta pertsonarekin maiz elkartu (ikus 12. orrialdea). Pello orain bigarren fasean dago: nahasmendua. Beraz, bigarren faseko teknikak erabili berarekin komunikatzeko (9). *Balioztatze metodoan formatuta dauden OP astean gutxienez 3 aldiz.*
  1. Zentratu. Distrakzioak saihestu.
  2. "Zer, nor, nola, noiz, non" bezalako galderak erabili. "Zergatik" ez galdetu.
  3. Parafraseatu.
  4. Polaritatea erabili: muturreko gauzez galdetu.
  5. Ukimena. Pellok ongi ikusi eta entzuteko, aurrez aurre eta hurbil jarri.
  6. kontaktu bisual egiazkoa, zuzena eta luzea erabili.
  7. Ahots tonu goxoa eta argia erabili.
  8. Pelloren emozioak kontuan hartu. Ezaugarri fisikoei arreta jarriz, emozioen ebaluazio objektiboa egin daiteke.
  9. Emozioari aurpegiaren, gorputzaren eta ahots tonuaren laguntzaz erantzun.
  10. Pelloren emozioak zirrarekin adierazi.
  11. Asko zehazten ez duten izenordainak erabili ulertzen ez dituen hitzak ordezkatzeko.
  12. Pelloren jokabidea, oinarritzko giza beharrak (emozionalak eta fisikoak) komunikatzeko era gisa identifikatu.
  13. Musika erabili (Mikel Laboaren kantuak) (Musikoterapia, ikus 70. orrialdea).
- Pelloren arreta eskuratu berari hitz egin baino lehen. Ez saiatu berarekin komunikatzen zerbait egiten ari bada. Ez deitu urrutitik edo beste gela batetik (7). *OP/J/F, egunero.*
- Galderak, bai/ez erantzuteko eran osatzen saiatu (20) *OP/J/F, egunero.*
- [497612] Esaten duena errepikatu, zehaztasuna ziurtatzeko. *OP/J/F, egunero.*
- Esaten zaiona ulertzen duela ziurtatu, galderen bidez (20). *OP/J/F, egunero.*
- Ingurua etiketatu, tiraderetan, armairuetan, ateetan...kartelak ezarriz, (Pellok irakurtzeko eta ulertzeko gaitasuna mantentzen baitu) (7). *OP, bi astetik behin.*

**...jarraitzen du... [00051] Ahozko komunikazioaren asaldura, Alzheimer gaixotasunarekin erlazionatua eta pentsamenduak adierazteko, hitzak antolatze eta elkarrizketa konplexuak mantentzeko zailtasunarekin eta ideiak errepikatzearekin azaltzen dena.**

**[0902] Helburua:** Pellok hilabete bat barru, ahozko/idatzizko/ez ahozko mezuak era eraginkorrago batean hartu, interpretatu eta adierazteko gai dela erakutsiko du, erizainarekin elkarrizketa bat mantenduz.

**ERIZAIN-INTERBENTZIOAK.**

**1) [4976] Komunikazioa hobetzea:** Pelloren komunikazio gaitasunak hobetzeko estrategia eraginkorrak erabiltzea.

**Jarduerak:** (Osasun profesional guztiak = OP), Josefina = J, Familiarrak = F)

- [497608] Komunikazioaren estiloa egokitu: aktiboki entzun,aldi bakoitzean ideia edo pentsamendu bakarra adierazi, poliki hitz egin, Josefina ren laguntza eskatu esan nahi duena ulertzeko zailtasunak daudenean... (23). OP/J/F, egunero.
- [497610] Zahar etxeko ingurua egokitu, gehiegizko zarata saihesteko eta estres emozionala murrizteko: bisitak gutxitu (siesta garaian, otordu garaian...) eta aparatuen (telebista, irratia...) soinua murriztu. OP, egunero.
- [497609] Inguru eta errutina egituratuak mantendu: ordutegiak finkatu, oroigarriak mantendu, egutegiak erabili... OP, egunero.
- [497619] Errefortzu positiboa eskaini. OP, egunero.

**2) [4920] Entzute aktiboa:** Pelloren ahozko eta ez-ahozko mezuei arreta jarri eta garrantzia eman.

**Jarduerak:** (Osasun profesional guztiak = OP), Josefina = J, Familiarrak = F)

- [492002] Pellorekiko interesa erakutsi. OP/J/F, egunero.
- [492003] Pentsamenduak, sentimenduak eta kezkek adieraztera animatu, galdera edo baieztapen bidez. OP, egunero.
- [492005] Emozioekiko sentsibilitatea erakutsi. OP, egunero.
- [492006] Komunikazioa errazteko, ez-ahozko komunikazioa erabili (gorputz jarrerak ez-ahozko mezuak transmititzen dituzte). OP/J/F, egunero.
- [492008] Erreparatu Pellok saihesten dituen hitzak eta erabiltzen dituen hitzekin batera doazen ez hitzeko mezuak zein diren. OP, egunero..
- [492010] Hitz egiteko erabiltzen dituen gai nagusiak zein den zehaztu. OP, egunero.
- [492011] Mezuen esanahia zehaztu, bere jokabideak, iraganeko esperientziak eta egungo egoera kontuan hartuz. OP, egunero.
- Esaten duena ulertzen ez bazaio, errepikatze eskatu. Bestela, errepikapen literala edo parafrazazioa erabili (23). OP/J/F, egunero.
- [492017] Isiltasun funtzionala erabili, bere sentimenduak, pentsamenduak eta kezkek azaltzen laguntzeko. OP, egunero.

**3) [5100] Sozializazioa indartzea.**

**Jarduerak:** (Osasun profesional guztiak = OP), Josefina = J, Familiarrak = F)

- [510001] Pellok jada osatuak dituen erlazioetan inplikazio handiagoa izan dezan estimulatu (esaterako, Lorenzo txikitako lagunarekin edo inguruko herrietako kide ezagunekin). OP, egunero.
- [510003] Pelloren interes antzekoak dituzten pertsonekin erlazionatzea erraztu: inguruko herrietakoak ez diren eta orain artean erlaziorik izan ez duen kideekin... OP, egunero.
- Pertsona gehiegi dauden bilerak edo pertsona ezezagunak dauden bilera zaratzak saihestu (7). OP, egunero.
- [510016] Ahoz komunikatzera animatu. Otorduak komunikazioa errazteko eta egunerokotasuneko elkarrizketara hurbiltzeko esperientzia sozial baliagarriak dira (23). OP, egunero.
- [510017] Besteekin erlazionatzen denean atzeraelikadura positiboa eskaini. OP, egunero.
- [510024] Iraganeko istorioak kontatzeko taldeetan parte hartzea animatu. OP, egunero.
- Familiako albumak begiratu eta bertan agertzen diren pertsonen eta gertaeren buruz hitz egin berarekin (7). OP/J/F, astean bi aldiz.
- Paseatu bitartean, ikusten denari buruz hitz egin (7). OP/J/F, egunero.
- Musika aktibitateetan parte hartzea animatu: musika tresnak erabiliz erritmo ariketak burutzeak isolamendutik atera eta besteekin erlazionatzeko aukera ematen du (30). Mikel Laboaren musika entzun eta abestu (7). (Musikoterapia, ikus 70. orrialdea). OP, egunero.



**[00085] Mugikortasun fisikoaren narriadura, funtzio kognitiboaren asaldurarekin eta narriadura muskulu-eskeletikoarekin erlazionatua eta oinez ibiltzeko zailtasunarekin nahiz gurpildun aulkian ibiltzearekin azaltzen dena.**

**[0208] Helburua:** Pellok egunero ordu erdi batez eta hilabete oso batez era eraginkorrean inguruan oinez ibiltzeko gaitasuna landuko du, bakarrik edo laguntza mekanismoarekin (taka-taka, bastoia, baranda edo pertsona bat).

**INDIKATZAILEAK:**

- [20801] Oreka mantentzen du.		1	2	3	4	5
Balorazio eskala (a): 1. larriki konprometitua; 2. substantzialki konprometitua; 3. neurritz konprometitua; 4. arinki konprometitua; 5. ez konprometitua.	ORAIN			X		
	LORTU NAHI DENA				X	
- [20802] Gorputz posizioa mantentzen du.		1	2	3	4	5
Balorazio eskala (a)	ORAIN			X		
	LORTU NAHI DENA				X	
- [20805] Lekualdatzea burutzen du.		1	2	3	4	5
Balorazio eskala (a)	ORAIN			X		
	LORTU NAHI DENA				X	
- [20809] Koordinazioa.		1	2	3	4	5
Balorazio eskala (a)	ORAIN			X		
	LORTU NAHI DENA				X	
- [20810] Martxa.		1	2	3	4	5
Balorazio eskala (a)	ORAIN			X		
	LORTU NAHI DENA				X	
- [20814] Erraz ibiltzen da.		1	2	3	4	5
Balorazio eskala (a)	ORAIN		X			
	LORTU NAHI DENA			X		

**ERIZAIN-INTERBENTZIOA.**

**1) [1806] Auto-zainketarekin laguntza:** Pellori transferentzietan lagundu eta ariketa fisikoa egitera bultzatu.

**Jarduerak:** (Erizaina = E; Erizain Laguntzailea = EL; Fisioterapeuta = Fi; Familiarrak = F; Josefina = J; Osasun profesional guztiak = OP)

- [180613] Pellok behar duen laguntza mota (makulua, bastoia, taka-taka,...) eta maila zehaztu: egunerokotasunean gurpildun aulkian ibiltzen da. Oinez, berriz, pertsona bati helduta edo barandari helduta eta norbaiten gainbegiratzearekin. E, astero.
- [180607] Era autonomoan mugitzera animatu; gurpildun aulkia pixkanaka uztera eta taka-takarekin ibiltzen hastera animatuko zaio. EL, arratsaldero 30 minutuz.
- [180605] Behar duen laguntza mekanismoa eskaini: taka-taka (hanketako muskuluak indartu ahala, gurpildun aulkia ordezkua dezan), baranda, pertsonaren gorputza "giza makulu" bezala... EL, egunero.
- [180603] Toki batetik bestera lekualdatzeko teknika egoki guztiak erakutsi, ahalik eta independentzia maila handiena lor dezan. E/EL, astean hiru aldiz.
- [180604] Teknikaren demostrazioa egin, hobe ulertu dezan. E/EL, astean hiru aldiz.
- [180606] Mugitzeko taka-taka ongi erabiltzen erakutsi. E/EL, astean hiru aldiz.
- [180602] Trasladoa egin bitartean lesioak saihesteko metodoak identifikatu. Esaterako, erorikoen lesioak saihesteko, bizikletaren kaskoa edo "kulotea" erabil daitezke (erabili nahi dituen galdetu). E, bi astetik behin.
- Ariketa muskularrak eta fisioterapia aktiboa eta pasiboa aurrera eramanean, masa muskularra galtzea saihesteko, tonu nahiz indar muskularra mantentzeko eta osteoporosia atzeratzeko (7). Fi, astean hiru aldiz, ordu erdi batez.
- Paseatzera irten, noizbehinka geldialdiak egin. E/EL/F/J, astean hiru aldiz, ordu erdi batez.
- Ariketak lagunekin edo familiarrekin egitera animatu, gehiago inplikatzeko. OP, egunero
- Ariketak egiten dituen bitartean Pello behatu. E/EL, egunero.
- Bizi-estilo aktiboa bultzatzen jarraitu, oinez ibiltzeko ohitura har dezan. OP/J/Fi/F, egunero.

### ***Lan ekitea.***

Planifikazioan planteatutako komunikazioaren eta mugikortasun fisikoaren jarduerak zahar egoitzan hilabete oso batez aurrera eraman behar lirateke. Jarduera guztiak osotasunean kalitatez eta segurtasunez gauzatu behar dira.

Arantzako zahar etxean beste egoiliarrekin egiten den gisan, logelako atean barrualdetik orri bat kokatu behar da. Bertan, Pelloren 14 beharretako bakoitzari buruzko informazio baliagarria eta zehatza ipiniko du. Era horretan, proposatutako jarduerak zentroko profesional guztiek ezagutzeko aukera edukiko dute eta denak Pelloren beharrei erantzuna ematen saiatuko dira.

Gainera, zentroko programa informatikoaz baliatuz Pelloren historial klinikoan egindako jarduerak eta bere egoeran izandako aldaketak erregistratu behar dira.

### ***Ebaluazioa.***

Pelloren ebaluazio jarraitua egin beharko litzateke hilabete guztian zehar. Hilabetea pasa ostean, ebaluazio sakonagoa burutu behar da, hiru aspekturi buruz: helburuak, erizaintza prozesua eta testuingurua. Horretan laguntzeko, behaketa zuzena, programa informatikoan egindako erregistroak eta hilabete bukaeran zentroko profesionalak egiten duten taldeko bilera erabiliko da.

Helburuen ebaluazioari dagokionez, erizain diagnostiko bakoitzean aurre ikusitako helburuak bete diren ala ez jakiteko eta Pelloren aurrerapenak baloratzeko indikatzaileak ebaluatu behar dira. Helburuak errealistak izan diren ala ez ere balioetsi behar da.

Erizaintza prozesuari dagokionez, erabilitako metodologia ebaluatu behar da eta aurrera egitea errazten edo zailtzen duten faktoreak identifikatu behar dira. Horrez gain, egindako interbentzio independenteei eta elkarren mendekoei emandako erantzuna ebaluatu behar da. Zainketa planaren balorazio jarraitua egin den ala ez baloratu behar da. Halaber, zainketa planean planteatutako jarduerak errealistak izan diren ala ez aztertu behar da. Behar izanez gero, zainketa plana birplanteatu behar da, pertsonaren edo familiaren adostasunarekin ahal den heinean.

Bukatzeko, inguruari dagokionez, baliabideak egokiak izan diren ala ez eta pertsonak bere arreta prozesuaz duen pertzepzioa balioetsi behar da.

## 5. EZTABAIDA

Alzheimer gaixotasuna gaur egun itzulezina da, hau da, sendaezina da (6). Menpekotasuna eta ezgaitasuna sortzen du (30) eta pertsonaren bizi kalitatea nahiz autonomia progresiboki murrizten ditu (13, 14). Horrez gain, eguneroko bizitzako jarduerak egiteko (13) eta komunikatzeko gaitasuna progresiboki kaltetzen du (21, 22).

Komunikazio arazoei dagokionez, lehen fasean hitz egokiak aurkitzeko zailtasuna eta esaldi motzagoak erabiltzea aipa daitezke (10, 15, 19). Bigarren fasean, hitzak antolatzeko arazoak agertzen dira (20, 21, 22), pertsonak behar ez den momentuetan hitz egin dezake (20) eta ideiak errepika ditzake (23). Hirugarren fasean pertsonak hiztegi murrizta du (23), zentzurik gabeko hitzak edo esaldiak esaten ditu (20) eta esaten zaiona maiz ez du ulertzen (19). Komunikazio defizit horien guztien ondorioz, pertsona pentsamenduak eta beharrak komunikatzeko (21) eta beste pertsonekin erlazionatzeko gaitasuna pixkanaka galtzen joaten da (21, 23) eta zaintzailearen gainkarga handitzen da (22) (gaixoarekin ez baitu komunikazio eraginkorrik). Komunikazioa hobetzeak garrantzia handia du: bizi-kalitatea handitzen du, estresa murrizten du eta pertsona gaixoaren errutina sozialak mantentzen laguntzen du (21). Komunikatzeko estrategia eraginkorren artean, oroimenaren laguntza (22), zaintzailearen heziketa (22) eta balioztatze metodoa (9) daude. Erizainak komunikatzeko estrategia eraginkorrak zein diren jakitea eta praktikara eramatea ezinbestekoa da (35).

Gaixotasuna sendaezina denez, ikusi da interbentzio ez farmakologikoak Alzheimerren tratamendurako efikazak direla, tratamendu farmakologikoarekin eta beste zainketekin konbinatzen badira (38). Medikazio dosi baxuago batekin batera erabil daitezke eta horrela medikamentuek sortzen dituzten bigarren mailako efektuak murrizten dira (esaterako, aromaterapiak psikotropoen eta antipsikotikoen erabilera murrizten du) (25). Interbentzio ez farmakologikoen efikazia hori besteak beste, J. Olazarán et al-ek 2010ean egindako berrikuspen sistematikoak (24) erakusten du. Terapia ezberdinen bidez lor daitezkeen onuren artean honakoak aipa daitezke: pertsonaren egoera kognitiboa, fisikoa eta funtzionala mantentzea, gaixotasunaren garapena atzeratzea (38), bizi-kalitatea hobetzea (24) eta zaintzailearen gainkarga murriztea (27). Alzheimer gaixotasunean garrantzia handienetakoa duena musikoterapia da (30). Erizainak interbentzio ez farmakologikoei buruzko ezagutza izan behar du, pertsonaren jokabidea maneiatzeko eta ongizate fisikoa nahiz psikologikoa bultzatzeko (42).

Aipatutako guztia dela eta, Alzheimerra duen pertsonak zainketa ugari beharko ditu. Espainian, gehienetan familia izaten da pertsonaren zainketez arduratzen dena. Azken

urteetan, familiaren egitura aldatu egin da. Horrek, alde batetik pertsonak familiaren babesa izatea zailtzen du. Bestetik, zaintzailearen gaitz handitzen du; demenziak arreta integrala eta jarraitua eskatzen baitu eta babes zerbitzu nahiz ordezkari zerbitzu gutxi baitaude (30).

Pertsonari zainketa integralak emateko, garrantzitsua da erizainak bere lana ahalik eta hobekien burutzen lagunduko dion zainketa plan estandarizatuaren eredu bat eskuragarri izatea. Izan ere, Alzheimer gaixotasunean erizainak aurrez ez daki pertsonari zer gerta dakiokeen eta ondorioz, bere jokabideari aurre hartzea zaila izaten da. Erizainak sormena izan behar du, sortu eta birstutu behar du, ezusteei aurre egiteko azkar jokatu behar du eta pertsonaren eskubideak kontuan izan behar ditu (30). Lan honetan proposatu den zainketa plan estandarizatuan, erizaintza prozesuari jarraiki ohiko dependentzia agerpenak adierazi dira eta horiei erantzuna emateko erizaintza diagnostikoak planteatu eta garatu dira.

Nolanahi ere, zainketak estandarizatzeko bere arriskuak ditu, bere horretan geratuz gero. Zainketa plan estandarizatua egokitu egin behar da pertsona bakoitzaren beharren, egoeraren, gaixotasunaren fasearen eta inguruaren arabera. Izan ere, pertsona bakoitza ezberdina da eta ondorioz, bere beharrak eta erantzunak ere. Beharrezkoa da pertsona ezagutzea, errespetatzea, bere hitz egiteko modua ulertzea eta duen jokabidea ulertzeko bere bizi historian sakontzea (30). Gainera, gaixotasuna aurrera doan heinean zeinu eta sintometan aldaketak gertatzen dira, pertsonak mailaz mailako ezgaitasun intelektual eta fisikoa pairatzen baitu (10). Hori guztia dela eta, aurrez ezarritako zainketa plan estandarizatua praktikara eramateak ez du funtzionatzen. Hitz gutxitan esanda, zainketa plan estandarizatua kasu bakoitzean indibidualizatu egin behar da.

Erizainak hausnarketa sakona egin behar du. Horrela, pertsonaren munduan murgildu ahal izango da eta momentu egokienean bere behar espezifikoak erantzun dion interbentzio egokiak, interbentzio pertsonalizatuak, aukeratu ahal izango ditu. Jarduera horiek pertsonaren eguneroko bizitzako jarduerak hobetzera eta bizi kalitatea mantentze edo hobetze aldera bideratuko dira, Alzheimerrek zuzenean horiengan eragiten baitu.

## 6. ONDORIOAK

- ❖ Alzheimerrek eragiten duen menpekotasunak, eragin handia du gaixotasuna duen pertsonarengan eta bere inguruarengan. Beldur handiak, etsipen egoerak eta inpotentzia sortzen ditu. Pertsonari gaixotasunarekin ahalik eta era osasuntsuenean bizitzen irakatsi behar zaio.
- ❖ Alzheimerra duen pertsonaren osasun egoera baldintzatzen duten faktore psikikoak eta sozialak ez dira inoiz gutxietsi behar. Izan ere, ez da erraza autonomia mantendu ostean, menpekotasun maila handitzen doala eta gaitasunak murrizten doazela ikustea. Hortaz, enpatiak eta komunikazioak, zainketak hobetzen eta pertsonaren parte-hartzea handitzen laguntzen dute.
- ❖ Pertsona gaixoari arreta zehatza, integrala eta kalitatezkoa eman behar zaio. Arreta hori multidiziplinarra, integratua eta koordinatua izango da. Profesional eta baliabide bakoitzaren parte hartzea, gaixotasunaren fase bakoitzean pertsonak dituen beharren arabera da. Zainketak prozesua egonkortzera, kalitatezko bizitza mantentzera eta auto-zainketa indartzera bideratuko dira.
- ❖ Aromaterapia, musikoterapia eta beste interbentzio ez farmakologikoak zahar egoitzetan, bestelako zainketa zentroetan (adibidez, eguneko zentroak) eta etxean egunerokotasunean erabiltzea onuragarria da.
- ❖ Zainketa plan estandarizatua pertsona bakoitzaren beharrei erantzuteko indibidualizatu egin behar da: aktibitateak indibidualizatu egin behar dira.
- ❖ Alzheimerra duen pertsonak eta bere ingurukoek egoera latz hori urteko 365 egunetan eta eguneko 24 orduetan bizitzen dute. Erizainak, zaintzaile den aldetik, rol garrantzitsua betetzen du: pertsona zaintzen du, eusten du, laguntzen dio (beharrak asetzen, bizi kalitatea hobetzen, baliagarri eta produktibo sentiarazten, emozio puruak adierazten, besteak beste) eta bere inguruarengan eragiten du. Erizainak zaintzen duen pertsona osotasunean ezagutzen ikasi behar du eta horretarako formazio zabala izan behar du.

## 7. EKARPEN PERTSONALA

Nire esperientzian oinarrituz, ikusi dudanaren arabera Alzheimerra duen pertsona zaintzen duten erizainek, beste osasun profesionalek eta zaintzaileek maiz ezagutza eta formazio gehiago behar izaten dute arlo hauetan, besteak beste: gaixotasunaren fase bakoitzeko zeinu eta sintomak, komunikazio asaldurak, gaixotasunaren ondorioak, komunikazio eraginkorra izateko estrategiak (esaterako, balioztatze metodoa) eta terapia ez farmakologiko baliagarriak. Horiez gain, esan daiteke Alzheimerra duen pertsona bati ematen zaion arretan erizaintza prozesua oraindik ez dagoela guztiz integratuta. Izan ere, erizaintza prozesuaren bost etapak (balorazioa, erizain diagnostikoak, planifikazioa, lana ekitea eta ebaluazioa) praktikan ez dira osotasunean aplikatzen modu sistematikoan.

Gabezia horiek ikusirik, lan honetan hasiera batean zahar etxean egindako praktikan ezagututako bigarren faseko Alzheimerra duen pertsona baten kasu klinikoa landu eta erizaintza prozesua bere osotasunean aplikatu nahi zen. Dena den, lehenik kasua Etika Batzordeak onartu egin behar zuen eta horrek Gradu Amaierako Lana egiteko prozesua atzeratuko zuen. Hori dela eta, azkenean Alzheimer gaixotasunaren zainketa plan estandarizatu proposatzea eta gero individualizatzea erabaki zen. Gainera, zainketa planak proposatzeko oinarri teoriko bat izatea garrantzitsua zelakoan, lehenik berrikuspen narratiboa burutzea deliberatu zen.

Alzheimerra gaur egungo osasun arazo nagusienetakoa izanik, zainketa plan estandarizatu bat eskuragarri izatea garrantzitsua da. Eredu hori baliagarria izan daiteke ez soilik erizainarentzat, baita Alzheimerra duen pertsona zaintzen duen edonorentzat ere. Beti ere kontuan izan behar da, zainketak individualizatu egin behar direla pertsonaren beharren, gaixotasunaren fasearen eta inguruaren arabera.

Erizainak eta Alzheimerra duen pertsona zaintzen duen edonork formazio handia izan behar du: gaixotasunaren nondik norakoak ezagutu behar ditu. Hau da, gaitasuna eduki behar du gaiaren inguruko ebidentzia ezagutzeko, hori praktikara eramateko, ikertzeko eta erizaintzako prozesua aplikatzeko (erizainaren kasuan). Izan ere, ezagutzak zalantza batzuk murrizten ditu, beste zalantza batzuk sortzen ditu eta horren haritik pixkanaka ezagutza gehiago barneratzen dira. Horrek erroreak gutxitzen ditu eta pertsonari ematen zaion arretaren kalitatea hobetzen du. Era horretan, erizainak Alzheimerra duen pertsonari kalitate oneneko zainketa integralak eman ahal izango dizkio.

## 8. BIBLIOGRAFIA

- (1) Boerma T, Mathers C, AbouZahr C, Chatterji S, Hogan D, Stevens G et al. Health in 2015: From MDGs to SDGs, 7. Mental health and substance use [Internet]. Frantzia: World Health Organization (WHO); 2015 [sartze data 2016/05/24]: 153-169. Erabilgarri: [http://www.who.int/gho/publications/mdgs-sdgs/MDGs-SDGs2015\\_chapter7.pdf](http://www.who.int/gho/publications/mdgs-sdgs/MDGs-SDGs2015_chapter7.pdf)
- (2) Forjaz MJ, Rodríguez-Blázquez C, editoreak. Salud y calidad de vida de personas mayores con demencia institucionalizadas [Internet]. Madrid: Escuela Nacional de Sanidad, Instituto de Salud Carlos III – Ministerio de Economía y Competitividad; 2015 [sartze data 2016/05/24]. Erabilgarri: <http://gesdoc.isciii.es/gesdoccontroller?action=download&id=29/10/2015-8c02524270>
- (3) Prince M, Wimo A, Guerchet M, Ali G, Wu Y, Prina M et al. Informe Mundial sobre el Alzheimer 2015. Las consecuencias de la demencia: análisis de prevalencia, incidencia, coste y tendencias [Internet]. Londres: Alzheimer's Disease International (ADI); 2015 [sartze data 2016/05/24]. Erabilgarri: <http://www.alz.co.uk/sites/default/files/img/world-alzheimer-report-2015-executive-summary-spanish.pdf>
- (4) Guía de Práctica Clínica sobre la atención integral a las personas con enfermedad de Alzheimer y otras demencias-ko lan taldea. Guía de Práctica Clínica sobre la atención integral a las personas con enfermedad de Alzheimer y otras demencias [Internet]. Plan de Calidad para el Sistema Nacional de Salud del Ministerio de Sanidad, Política Social e Igualdad. Agència d'Informació, Avaluació i Qualitat en Salut de Catalunya; 2010 [sartze data 2016/05/24]. Erabilgarri: [http://www.guiasalud.es/GPC/GPC\\_484\\_Alzheimer\\_AIAQS\\_compl.pdf](http://www.guiasalud.es/GPC/GPC_484_Alzheimer_AIAQS_compl.pdf)
- (5) Pot AM, Petrea I. Improving dementia care worldwide: Ideas and advice on developing and implementing a National Dementia Plan [Internet]. Londres: Alzheimer's Disease International (ADI), Bupa; 2013 [sartze data 2016/05/24]. Erabilgarri: <https://www.alz.co.uk/sites/default/files/pdfs/global-dementia-plan-report-ENGLISH.pdf>
- (6) CEAFA (Confederación Española de Asociaciones de Familiares de personas con Alzheimer y otras Demencias) [Internet]. Iruña: CEAFA; [sartze data 2016/05/24]. El Alzheimer: La enfermedad. Erabilgarri: <http://www.ceafa.es/es/el-alzheimer/la-enfermedad>
- (7) Rodríguez F, Ceballos R. Enfermedad de Alzheimer y Calidad de Vida. 3. edizioa. Jaén: Formación Alcalá; 2002.
- (8) Alzheimer's Disease International (ADI) [Internet]. Londres: ADI; [sartze data

2016/05/24]. Alzheimer`s Disease: Symptoms. Erabilgarri:  
<http://www.alz.co.uk/info/alzheimers-disease>.

(9) Feil N. Validación: Un Método para Ayudar a las Personas Mayores Desorientadas. Barcelona: Herder; 2002.

(10) Manual de Actuación en la enfermedad de Alzheimer y otras Demencias-eko lan taldea. Manual de actuación en la enfermedad de Alzheimer y otras Demencias [Internet]. Canarias: Gobierno de Canarias, Consejería de Sanidad, Servicio Canario de la Salud Dirección General de Programas Asistenciales; 2011 [sartze data 2016/05/24]. Erabilgarri:

[http://www3.gobiernodecanarias.org/sanidad/scs/content/7730420f-4820-11e1-92c3-9195656fdecf/26797\\_ag%20ALZHEIMER\\_%20baja.pdf](http://www3.gobiernodecanarias.org/sanidad/scs/content/7730420f-4820-11e1-92c3-9195656fdecf/26797_ag%20ALZHEIMER_%20baja.pdf)

(11) Parra L, Pancorbo PL. Guías de práctica clínica de cuidados a personas con Alzheimer y otras demencias: revisión de la literatura. Gerokomos [Interneteko aldizkaria]. 2013 [sartze data 2016/05/23]; 24(4): 155-160. Erabilgarri:  
[http://scielo.isciii.es/pdf/geroko/v24n4/02\\_revision.pdf](http://scielo.isciii.es/pdf/geroko/v24n4/02_revision.pdf)

(12) Nascimento N, Costa I, Freitas R. Nutritional aspects and their influences on the pathophysiology of Alzheimer's disease: A systematic review. Rev Ciênc Méd [Interneteko aldizkaria]. 2014 [sartze data 2016/05/23]; 23(1): 33-40. Erabilgarri:  
[http://repositorio.ufc.br/bitstream/riufc/10098/1/2014\\_art\\_rmfreitas.pdf](http://repositorio.ufc.br/bitstream/riufc/10098/1/2014_art_rmfreitas.pdf)

(13) Amiri H, Saeidi K, Borhani P, Manafirad A, Ghavami M, Zerbi V. Alzheimer's Disease: Pathophysiology and Applications of Magnetic Nanoparticles as MRI Theranostic Agents. ACS Chem Neurosci [Interneteko aldizkaria]. 2013 [sartze data 2016/05/23]; 4(11): 1417-1429. Erabilgarri:  
<http://pubs.acs.org/doi/pdf/10.1021/cn4001582>

(14) Sadigh-Eteghad S, Sabermarouf B, Majdi A, Talebi M, Farhoudi M, Mahmoudi J. Amyloid-Beta: A Crucial Factor in Alzheimer's Disease. Med Princ Pract [Interneteko aldizkaria]. 2015 [sartze data 2016/05/23]; 24(1): 1-10. Erabilgarri:  
<http://www.karger.com/Article/Pdf/369101>

(15) Isik AT. Late onset Alzheimer's disease in older people. Clin Interv Aging [Interneteko aldizkaria]. 2010 [sartze data 2016/05/23]; 5: 307-311. Erabilgarri:  
<http://www.ncbi.nlm.nih.gov/pmc/articles/PMC2981103/pdf/cia-5-307.pdf>

